

II. BERDINTASUN PLANA



LAUTADAKO KUADRILLA

LAUTADAKO KUADRILLAKO  
EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO II. PLANA  
2020-2024



ARABAKO LAUTADAKO  
KUADRILLA  
CUADRILLA DE LA  
LLANADA ALAVESA

*Kuadrillako Topaketara hurbildu zineten guztiei.  
Berdintasun Kontseiluaren deialdietara joan ziren emakumeei, Lautadako Kuadrilla  
leku zuzen, justu eta libre nola bihurtu pentsatzeko.  
Gure galderak erantzun zenituztenei.  
Zurrunbiloaren erdian, generoak euren lanean zer eragina duen pentsatzeko tarte  
bat atera duten profesional guztiei.  
Kuadrillako alkateei eta presidenteari, Berdintasunerako Politikak laguntzeagatik.  
Lautadan Berdintasunaren aldeko borrokan parte hartu duten guztiei, eta datozen  
lau urteetan parte hartuko dutenei.  
Eskerrik asko.*

Proiektuaren zuzendari  
eta koordinatzailea:



Klara Afonso.  
Lautadako Kuadrillako  
Berdintasun Zerbitzua.

Honen laguntzarekin:



Helena Ortiz de  
Lejarazu.  
Red Kuorum SL 2019ko  
abendua.

Finantzazioa:



Emakunde -  
Emakumearen Euskal  
Institutua

Finantzazioa:



Arabako Foru Aldundia

# AURKIBIDEA

SARRERA .....	3
1. AURREKARIAK, ERREFERENTZIAK ETA MARKO LEGALA .....	4
2. EGITEKO PROZESUA.....	8
3. PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK .....	11
4. KOORDINAZIO AZPIEGITURAK: GENERO ARKITEKTURA .....	14
5. BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN EGITURA .....	22
6. GOBERNU ONA.....	23
7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN ESKU-HARTZE ARDATZAK .....	30
8. LAUTADAKO KUADRILLAKO II. PLANAREN EBALUAZIOA .....	48
9. NEURRIAK GAUZATZEA: EKINTZAK, ADIERAZLEAK, ARDURADUNAK ETA KRONOGRAMA.....	50
10. AURREKONTUA .....	72

# SARRERA

Arabaren Berdintasunerako Politikak ezarri dituen aitzindaria izan da Lautadako Kuadrilla. Horrela, udalerri mailan diseinatutako Berdintasun planak: Burgelun hiru, Alegría-Dulantzin, bi; Asparrenean, bat; kuadrilla mailan, Lautadako I. Berdintasun Plana Arabako lehenengoa izan da. Lautadako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana parte-hartze prozesu baten emaitza da, baita Kuadrillan berezko Berdintasun Unitate bat egoteko aukera eman zuen bultzada politiko batena ere, osatzen zuten udalerrien laguntzarekin finantzatua.


Ibilbide honek aurrerapen eta praktika on nabarmenak eman dizkio, aurreko udalerri Planen diagnostiko eta ebaluazio prozesuan jaso direnak, bereziki Alegría-Dulantzikoa, baina baita Kuadrilla osokoa ere. Horregatik, lehendabiziko bi kapituluetan aurrekariak, erreferentziak eta aintzat hartu den marko legala zehaztutako eta erabilitako lan metodologia zein prozesua deskribatzen dira.

Gainera, Planaren oinarria Berdintasun Saileko hausnarketa estrategikoko prozesu bat ere bada. Horretan, politikariek eta teknikariek hartu dute parte, baina baita Lautadako udalerrietako elkarte mugimenduko emakumeek ere, erronkak zein lehentasunak, eta datozen lau urteetan ekintza bideratu behar duten jarduera printzipioak egituratzen laguntzeko.

Benetako Berdintasuna eraikitzekotan, proiektua inspiratuko duten ondorengo ekintza guztiak zeharkako elementutzat joko dira: emakumeen autonomia eta askatasunean laguntzea Kuadrillako emakumei ongizatea eskaintzen dien ikuspegi batetik: euren beharrei –garraioa eta haurtzaindegi zerbitzua, adibidez– arreta ematea ikuspegi ludiko bat emanez; mugimendu feministaren ekarpenak aitortzea eta ezagutzea, gure udalerrietako ekarpenei balioa emanez; eta kuadrilla mailako ikuspuntua zein udalerri arteko kooperazioa aldarrikatzea ikuspegi komun batetik: estrategikoa, feminista eta generokoa dena, Kuadrillako emakumeen ahizpatasuna sustatuko duena; eta hau guztia, osatzen duten udalerrien berezitasunen berezko beharrak alde batera utzi gabe.

Halaber, zeharkako elementuak izango dira genero ikuspegia administrazioaren lehentasun politikoetan eta egitura eta prozeduretan sartzea, baita emakumeen beste egoera berezi batzuk ere: genero ezberdintasunarekin batera horrekin elkartzen direnak, diskriminazioaren esperientzia zehatza desberdintasunen batuketan baino zerbait gehiago eta zerbait ezberdin bihurtuz.

Horretarako, planak berme batzuk eta genero arkitektura deitutako koordinazio eta kolaborazio oinarriko azpiegitura bat ezartzen du. Izan ere, horiek gabe ez da posible ikusten planteatutako objektiboak lortzea. Horrek guztiak Plan honetan proposatzen diren ardatzen, helburu estrategikoen eta neurrien oinarria osatzen du.



# 1. AURREKARIAK, ERREFERENTZIAK ETA MARKO LEGALA

## 1.1 AURREKARIAK

Lautadako Kuadrillako II. Berdintasun planak aurretik dituen lorpen eta esperientziaren aurrerapenetan oinarritu beharko da.

Berdintasun planifikazioa jorratu zuten Kuadrillako lehenengo udalerrriak Burgelu eta Alegria-Dulantzi izan ziren. 2016an gauza bera egin zuen Kuadrilla osoak, eta aitzindari izan zen Araban Kuadrillako Plan bat diseinatzen. Gainera, horren ebaluazioa klabea izan da II. Plan hau egiteko.

Ebaluazio honek agerian utzi du 2015ean sortutako eta ordutik zortzi udalerrietan eta Kuadrillan ekimenak lurralde osoan martxan jarritz arreta eman duen Berdintasun Unitatea sortzeak Lautadan emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako borrokari benetako bultzada eman diola.

Horietako bat *Lautadan Indarkeria Matxistaren Biktimaren Arreta emateko Erakunde arteko II. Koordinazio Protokoloa* egitea izan da –aurrerantzean, II. Protokoloa–. Dokumentu honek osasun arloaren, gizartearen eta poliziaren artean jardura prozedurak koordinatzeko aukera ematen du, eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan tresna gakoa da.

## 1.2 ERREFERENTZIAK ETA MARKO LEGALA

Horregatik, Plan hau egiteko Alegría-Dulantziko eta Burgeluko planen diagnostikoa zein ebaluazioa, Kuadrillako I. Berdintasun Plana, eta egungo II. Protokoloa sortu zuen indarkeria alorreko diagnostikoa erreferentziatzat hartu dira.

Gainera, prozesu hau Arabako Foru Aldundiak Kuadrilletan berdintasunerako neurrien garapenari bultzada handia ematen ari dion testuinguruan egin da: helburuak eta jarduera neurriak diseinatzean ere aintzat hartu dena. Azkenik, egun Emakunde indarrean dauka EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana 2018-2021, eta bere edukiak I. Plan honen egitura zehazteko erabili dira, 4/2005 Legearen 15. artikuluari jarraiki, 3. Puntuan zera dioena: *“Arabako Foru Aldundiak eta udalek Berdintasunerako plan edo programak onartuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren planifikazio orokorrean ezarritako esku-hartze eta zuzentarauen ildoan arabera”*.

Legearen artikulua honek aipatzen dituen esku-hartze ildoak ondorengoak dira, gaur egun:



### GOBERNU ONA

- I. PROGRAMA: Konpromiso politikoa.
- II. PROGRAMA: Berdintasunerako trebakuntza.
- III. PROGRAMA: Genero ikuspegia lan prozeduretan.
- IV. PROGRAMA: Koordinazioa eta kolaborazioa.
- V. PROGRAMA: Parte-hartzea eta eragina.

### I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- 1. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntze pertsonala zein kolektiboa sustatzea.
- 2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntze soziala zein politikoa laguntzea.

### II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATU ESKUBIDEAK BERMATZEKO

- 3. PROGRAMA: Berdintasuna eraldaketa sozialerako eta ekonomikorako beharrezko balioztat aitorzea.
- 4. PROGRAMA: Emakumeen autonomia ekonomikoa.
- 5. PROGRAMA: Zaintzen ekonomia feminista.

### III. ARDATZA. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

- 6. PROGRAMA: Sentsibilizazioa eta prebentzioa.
- 7. PROGRAMA: Kaltea hautematea, arreta ematea eta konpontzea.
- 8. PROGRAMA: Erakunde arteko koordinazioa.

### 1.3 MARKO LEGALA

Plan honen Marko Legal nagusia Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005 Legea da, Lege hau aldatzeko behin-behineko zirriborro bat existitzen bada ere. Beraz, aintzat hartu da egun duen forma eta etorkizunerako garapenak aurreikusten saiatu dira, Lautadako Kuadrillan aldatu beharrekoa sartzeko. Lege horren I. Tituluan, 7. Artikuluaren I. kapituluan “Eskumen eta Funtzioak”, Tokiko Administrazioari dagozkion funtzioak zehazten ditu: Era berean, 4/2005 Legearen I. Tituluak, 10. Artikulua, I. Atala, II. Kapitulua, “Euskal Herriko Administrazioen arteko Erakundeen antolaketa eta Koordinazioa”, Berdintasun eremuan tokiko organismoek dituzten funtzioak zehazten ditu:








## 2. EGITEKO PROZESUA

IEP izan da proiektuaren garapenerako erabilitako metodologia, hau da: Ikerketa-Ekintza-Partaidetza. IEP ez da ikerketa bakarrik, ezta parte-hartze ikerketa ere, ezta ikerketa-ekintza ere; presentzia erreala, zehatza, eskatzen du, eta Ikerketaren, Ekintzaren eta Parte-hartzearen elkarrekiko harremana:



- Ikerketa hausnarketa prozedura baten bidez eman da, sistematikoa, kontrolatua eta kritikoa, errealitatea aztertzea helburu duena, kasu honetan Lautadako politikak, xede zehatz batekin: 4/2005 Legea eta Berdintasun planak betetzen direla egiaztatzea, Planaren garapena eta hurrengo lau urteetarako jarduera planifikatzea.
- Ekintza ez da ikerketaren azken xedea bakarrik, ezagutza iturri bat da, proiektua egitea esku-hartzeko modu bat den bitartean. Horregatik, ebaluazioaren emaitzak Kuadrillan teknikarien formazio prozesu bat izan dira aldi berean. Horiekin bi saio egin dira, ebaluazio saio bat eta planifikazio saio bat. Politikariak gako izan dira hausnarketan, une horretara arte egindako ibilbidea nola baloratzen duten eta etorkizunerako garapenari dagokionez zer espero duten ezagutzeko elkarrizketa sakonen bidez.
- Partaidetzak esan nahi du prozesuan ikerketa profesionalak egoteaz gain proiektua jasoko duen komunitatea ere dagoela, bere errealitate propioa ezagutzen eta eraldatzen laguntzen duen subjektu aktibo bezala. Horregatik, Plana Berdintasunaren alorrean dauden beharren gaineko aurretiko hausnarketa batez abiatuta diseinatu da, teknikari eta idazkariekin ekintza formazio prozesuekin, politikariak planteamendu estrategikoetan inplikatur - eta elkarre mugimenduaren ekarpen zehatzekin, aurrerago islatuko diren lehentasunak definitzen lagundu dutenak.

Hiru faktore hauen konbinazioa zehazteko, jarraitutako prozedurak ondorengo pausuak ekarri ditu:

### Prozesuko parte-hartzaileak:

- 18 teknikari
- 9 politikari
- 51 herritar

#### 1. LANEN PRESTAKUNTZA ETA PROIEKTUA MARTXAN JARTZEA

- 1.1 Martxan jartzeko bilera.
- 1.2 Berdintasun Zerbitzuarekin elkarriketa: diseinuaren balorazioa, prozesua eta emaitza zuzenak.
- 1.3 Bigarren mailako iturrien analisia: inpaktuaren balorazioa eta egoera.

#### 2. LANDA LANA

- 2.1 Politikariei egindako elkarrizketak. 9 pertsona.
- 2.2 Teknikariek formazio-ekintza taldea. 12 pertsona.
- 2.3 Idazkariek lantaldea. 6 pertsona.
- 2.4 Teknikariek bigarren lantaldea. 8 pertsona

#### 3. ELKARTE MUGIMENDUAREKIN ETA ONURADUNEKIN EBALUAZIOA

- 3.1 Berdintasun Kontseiluaren Formazio-Ekintza. 10 pertsona
- 3.2 Lantaldea Eskualde Topaketan. 35 pertsona
- 3.3. Lantaldea Eskualde Kontseiluarekin, neurriak lehenesteko. 6 pertsona

#### 4. BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN NEURRIEN ETA HELBURUEN EKARPENAK

- Berdintasun Teknikarien ekarpenak jaso eta bidaltzea
- Politikarien taldea: 9 pertsona.
- Elkarte mugimenduari bidaltzea
- Planaren behin betiko dokumentua egin

Zehatzago, hauxe izan da garatutako lan prozesua:

- Lan prozesua abiarazi zen, Berdintasun Unitatearekin metodologia alderatu zen eta jarraipen materiala eta oinarritzko txostenak jaso ziren.
- Bigarren mailako iturrien analisia egin zen. Kuadrillako egungo egoeraren mapa bat egiteko xedez, Berdintasunaren egoerarentzat garrantzitsuak diren datu estatistikoak eta alderdi soziodemografikoen txosten kualitatiboak berrikusi ziren. Horien artean:
  - EUSTAT- Euskal Estatistika Institutuaren datuak
  - Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuak
  - Garapen Hiri Behatokiaren datuak.
  - Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren –GOFI– datuak.
  - Lautadako Kuadrillan Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostikoa
  - Lautadako barne dokumentazioa.
- Bi lan saio egin ziren Berdintasun Teknikariarekin: bat, elkarrizketak eta formazio ekintza taldeak antolatzeko.


Honi, prestatutako online galdetegiak gehitu zitzaizkion elkarrizketan parte hartu ezin izan zuten pertsonentzat.

- Prozesu honen ostean, ordubeteko elkarrizketa egin zitzaion Kuadrillako udalerrietako alkateei edota Berdintasun zinegotziei.
- Formazio ekintza taldea garatu zen teknikariek, bost orduko iraupena izan zuena. 12 pertsona joan ziren. Hortik, Berdintasunerako Politiken eta behar tekniko lehendabiziko balorazio bat egin zen: genero inpaktuaren ebaluazioa eta sexuen arabera datuak izan ziren interes gehien piztu zuten gaiak.
- Ekarpinak jaso ondoren, Berdintasun Kontseilua deitu zen. Kontseiluak berak hala eskatuta, oinarritzko formazioa jaso zuten. Prozesu horretan I. Planaren balorazioa egin zen.
- Informazio horrekin guztiarekin, Lautadako Kuadrillako Berdintasunerako Politiken Ebaluazio Txostenaren zirriborroa egin zen.
- Ebaluazioa egin ondoren, laburpen dokumentu bat sortu zen, Teknikariei aurkeztu zitzaien hiru orduko formazio ekintza saio batean, non planari ekarpinak egin zitzaizkion.
- Era berean, Ebaluazioa Kuadrillako Topaketan aurkeztu zen. Topaketaren amaieran, lantalde bat dinamizatu zen, Planaren ekarpinak jaso ziren eta emakume guztiei Kontseiluko hurrengo saioan parte hartzeko deia egin zitzaien, ekintzak lehenesteko.
- Kontseiluaren hurrengo bileran, Topaketan jasotako ideiak eta Berdintasun Zerbitzuaren betebeharrak aurkeztu ziren. Bi ordu eta erdiz, parte hartu zuten sei emakumeek euren balorazioa eman eta Kontseiluaren etorkizunari buruz eztabaidatu zuten.
- Era berean, udalerrri guztietako politikari eta alkateekin alderatu zen. Planteamendu estrategikoa alderatu zen eta ekarpen garrantzitsuak jaso ziren, amaierako dokumentuan ere islatzen saiatu garenak.
- Horrekin guztiarekin egin da dokumentu hau: 78 politikariaren, teknikariaren eta herritarren partaidetzarekin.

# 3. PRINTZIOIOAK ETA BERMEAK

## 3.1 PRINTZIOIOAK

Plan honek bost printzipio jarraitzen ditu, garapen guztian orokorrean ezarriko direnak. Printzipio horiek ez dira asmo deklarazio hutsa. 2019ko urriaren 19ko Kuadrillako Topaketa bitartean egindako herritarren partaidetzetatik atera dira, laguntzen dituzten irudiek erakusten duten bezala –bota ziren beharrak jaso ziren arbeletako zatiak–.




### EMAKUMEEN AUTONOMIA ETA ASKATASUNA ZAINTZATIK PARTE-HARTZERA: GARRAIOA ETA HAURTZAINDEGIA

• Plan hau garatzea ezinezkoa da Lautadako emakumeen parte hartzerik gabe. Baina parte hartze hau oso konplexua da: udalerrri txikiak dira, anitzak, emakume kopuru handia biltzea zaila da, eta beraz, isolamendu sentimendua sortzeko arriskua dago. Berdintasunean inplikatzeko oso eraikizalea den prozesua da, baina kostu bat dauka: batzuetan, frustrazioa sor dezake gizarte aldaketak oso motelak direlako, edo nekea erabateko inplikazioa eskatzen duen esfortzuaren handitasuna dela eta. Beraz, prozesuak berak, Planaren helburu gehienekin koherentea izateko, martxan jartzen duten emakumeei ongizatea eskaintzeko erantzukizuna dauka, eta gutxieneko erraztasunak emateko, behintzat, garrarioa eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiz. Garrario publikoa eskuragarria ez izatea diskriminazio faktore nagusietako bat den eremuak dira landa-eremuak, inguruko zerbitzuez gozatzeko eta horiek erabiltzeko aukera mugatzen duelako. Emakume asko garrario publikoaren menpe daude, eta euren denbora murriztea dakar. Izan ere, parte-hartzaileek azaldu zuten bezala, Lautadan konexioak ez daude euren beharretara egokitu, ezta eguneroko bizitzaren egoerara ere. Bestalde, eta erantzunkidetasuna Kuadrillan berdintasuna lortzeko egin gabeko lanetako bat den bitartean, haurtzaindegiak edo ludoteka zerbitzuak ezinbestekoak dira OROKORREAN eta berdintasunerako ekintzak antolatzean bereziki.

### PARADIGMA FEMINISTA

- Emakumeok pairatzen dugun diskriminazioa, jazarpena eta indarkeria, patriarkala eta androzentikoa den sistema baten eta hau oinarritzen den botere-egituren ondorioak dira. Desberdintasunak izaera estrukturala dauka eta ez politikoa edo legala bakarrik.
- Horregatik, Hirugarren Olatuko aldarrikapen feminista berdintasun erreala da, desberdintasuneko egitura apurtzeko beharra eta emakumeek eskubide, botere edo baliabideak eskuratzeko hasiera baldintza berdina izateaz gain horiek gauzatzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren baldintzak izatea bermatzea ere azpimarratzen duena.
- Plan hau berdintasunaren ikuspegi integral horren barruan sartzen da. Hura martxan jartzeak feminismoak emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioak emateko arrazoiak ulertzeko egindako ekarpenak zeharka zabaltzea eta aitortzea ekarriko du.



Y discriminación múltiple  
Fomentar autonomía asociaciones  
Españ reflexión importante  
- Conseguir representación  
de mujeres unidas =  
- Poner en valor lo que  
hacemos - Formación  
- Consejo  
- + presupuesto.

### •INDARRAK BATZEA: KUADRILLA MAILAKO IKUSPEGIA ETA AHIZPATASUNA

•Berriz ere jaso genituen Lautadako emakumeen ahotsa adieraztean ahalduntzea, oinarritzko estrategia bezala, banakako erakuntza dela, baina baita ere, eta bereziki, kolektiboa, indarrak batzea eskatzen duena. Dinamiketan emakumeei zituzten beharren inguruan galdetzen genienean, eskatu zuten lehendabiziko gauza izan zen elkarte mugimendua indartzea, ekimen feministak inguru txikietan zabaltzeko beharra. Testuinguru horretan sortu zen ahizpatasuna (sororitatea) kontzeptua, Marcela Lagardek honela definitzen duena: "ezberdinak eta parekoak diren emakumeen arteko laguntasuna, lan egin, sortu eta konbentzitu nahi duten konplizeak, feminismoan topo egiten eta aitortzen direnak, bizitza benetan libertarioa den zentzu batekin bizitzeko". Emakumeen arteko ahizpatasuna sortzeko, oinarritzkoa da harremanetarako espazioak garatzea, erakundeek lagundu behar dituzten sareak. Honek dakarrena da Kuadrillako udalerririk koordinatu behar direla, lurralde, autonomia edo estatu mailan sustatu daitekeen harremanaz aparte. Horregatik, jarduera printzipioetako bat izan behar da udalerrietako beharrei erantzuna eman behar bazaie ere, kuadrilla mailako ikuspegia landu behar dela, indarrak batzeko ezberdintasunak gaituz, aintzat hartuz udalerririk ezberdinak badira ere, emakumeen beharrak berdinak direla.

### •GENERO IKUSPEGIA SARTZEA

- Genero zeharkakotasuna emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa politika publikoetan sartzea da. Modu horretan, baliabide guztiak baldintza berdinetan eskuratzea bermatzen da, politika publikoak existitzen diren genero arrakalak aintzat hartuz planifikatzen dira eta berdintasun errealak aurrera egin ahala hauek sortutako emaitza eta inpaktuak identifikatzea eta ebaluatzea.
- Honek kudeaketa ereduari bi aldaketa behintzat ematea dakar: lehenengoak prozedura aldatzea da, politiken erdialdean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak jarriz bi sexuen beharrak modu ekitatiboan asetzeko.
- Bigarrena administrazio publikoaren egiturak eta antolaketa ereduak berrikustea da, oinarritik deuseztatzen desberdintasun sozialak mantentzen dituzten elementuak.

MAJUS  
Transversalidad  
Generos  
Utilizar el espacio  
para datos de género  
Política de igualdad  
Incorporación género en leyes  
Focalización  
Seguimiento - Planificación género  
CUIDADOS  
Poner en valor los cuidados  
a nivel local

Fomentar participación a nivel cuadrilla e implicación personal y política.  
Juventud e Educación  
Empoderamiento individual y discriminación múltiple  
Fomentar autonomía asociaciones  
Españ reflexión importante  
- Conseguir representación de mujeres unidas =  
- Poner en valor lo que hacemos - Formación

### •INTERSEKZIONALITATEA

- Intersekzionalitatean gizarte desberdintasuna sor dezaketen emakumeen egoera bereziak baloratu eta aztertu behar dira, genero desberdintasunaren izaera estrukturala alde batera utzi gabe. Hau estrukturala da eta diskriminazioa sor dezaketen gainontzeko desberdintasunetan ere badago. Horien artean daude adina, jaioterria, sexu aukera eta genero identitatea, aniztasun funtzionala, egoera administratiboa edo baliabide ekonomikoak, etab.
- Baina emakume askok bizi duten egoera ezaugarritzen duena da batzen direnean ez dela desberdintasun batuketa bat, baizik eta genero eta arrazaren diskriminazioa, sexu orientazioa, jatorria, adina, aniztasun funtzionala... modu ezberdinean lotzen dira egoera personal edo talde sozial bakoitzean. Plan hau ezartzeko prozesuan egoera hauen arabera identifikatzen eta jarduten saiatuko gara.

### 3.2 BERMEAK

Gainera, plan hau betetzeak **berme** batzuk eskatzen dituela uste dugu. Horiek gabe ezinezkoa izango da ezartzea:

#### BALIABIDE NAHIKOAK

- Instantzia publikoek sustatutako edozein aldaketa sozialak nahikoa baliabide material eta giza baliabide behar du. Horretarako, ezinbestekoa da lautadako udalerriek bi esfortzu egitea:
- Bat Berdintasun Unitatea mantentzea da, 150 orduko formazioa eta Berdintasun kontuetan esperientzia duten giza baliabideekin, jardunaldi osoan eta lanpostuaren erantzukizunen arabera kontratazio baldintzekin, A1 ordutegi malgutasunari eta kontratazio mailari dagokienez.
- Bigarrena aurrekontuaren gainekoa da. Beharrezkoa da Berdintasun aurreikuspenen eta eskaeren erritmoan hazten jarraitzea. Horretarako, beharrezkoa da bermatzea Lautadako Kuadrillak eta udal guztiek plan honen beharrak aintzat hartuko dituztela euren urteko aurrekontuak egitean, udal guztiek beste erakundeen dirulaguntza eskariak lagunduko dituzte, horretarako beharrezkoak diren administrazio lanak eginez.

#### KONPROMISO POLITIKOA ETA ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA

- Ezin da neurri publikorik garatu ordezkaritza politikoen bultzadarik gabe. Inplikazio eta konpromiso politikoa udalerrri bakoitzaren lan agendaren lehenetsunetan genero ikuspegia sartzean ikusi beharko da.
- Konpromiso hau erakundeen artean koordinatzeko beharrera zabaltzen da, eta lan egitea behar denean eta posible denean, kuadrilla mailako ikuspegitik, sinergiak sortzeko eta irizpideak batzeko eta garatutako politiketan koherentzia sortzeko.

#### EMAKUMEEN EKARPENAK SARTzea

- Emakumeen ahalduzko Berdintasuneranzko bidearen oinarritzko ardatzetako bat denez, ez litzateke logikoa izango beraien iritzia aintzat hartzen ez dituzten politikak garatzea. Politika publikoak orokorrean eta Berdintasunerako Politikak bereziki, hautemandako beharrak asetzera bideratu behar dira.
- Horregatik, ezinbestekoa da Plan honetan aurreikusitako bide guztietatik jaso daitezkeen ekarpenak, bereziki Kontseilutik, entzutea, baloratzea eta, ahal den neurrian, sartzea, Lautadan eremu honetan egin nahi den bidea elkarrekin eraikitzeko oinarritzko berme gisa.

## 4. KOORDINAZIO AZPIEGITURAK: GENERO ARKITEKTURA

Administrazio publikoetan genero ikuspegia sartzeko prozesuaren garapenean aurrera egiteko, eta Plan honek jasotzen dituen neurriak ezartzeko, oinarritzko azpiegitura bat sortu behar da, “genero azpiegitura” izenarekin ere ezagutzen dena, estrategia eragin bihurtzen eta bideragarritasuna ematen diona.

Genero arkitektura hau jarraipen eta koordinazio formulez osatuta dago, estrategia honek Berdintasunerako Politikaren horizontaltasuna bermatzeko formula bezala sartzen dituen aldaketa elementuetako bat ere osatzen dutenak. Estrategiaren garapenari eta jarduerak egiteari eusten dioten egiturez, unitatez edo organoiez osatuta daude, politiketan Berdintasuna zeharkatzeko aukera ematen dutenak.

Hauek dira ezarpenaren oinarritzko egiturak:



#### LAUTADAKO KUADRILLAKO BERDINTASUN UNITATEA

- Hauek osatzen dute:
- **Berdintasun Teknikaria:** Berdintasunerako II. Plan hau diseinatzeko, ezartzeko eta garatzeko eta emaitzak ebaluatzeko erantzukizuna hartzen du bere gain. Berdintasun Agente batek osatzen du, berariazko formazioa duena (% 100eko dedikazioa).
- **Zuzendaritza:** Berdintasun Unitatearen zuzendaritza erantzukizuna Kuadrillako Presidenteak dauka.

#### KUADRILLAKO SUSTAPEN EGITURAK

- **Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Teknikoa:** Kuadrillako eremu bakoitzeko maila teknikoko ordezkariak biltzen ditu eta udal teknikariak ere bildu ahalko ditu.
- **Planaren Jarraipen eta Koordinazio Batzordea, eta Indarkeriaren Protokoloa:** Udalerri eta Kuadrillako Berdintasunerako Politiken arduraduna den politikariak biltzen ditu: Alkateak eta Kuadrillako Presidenteak.

### PLANA EZARTZEKO GENERO ARKITEKTURA

#### LANKIDETZA ETA PARTAIDETZA SOZIALEKO EGITURAK

- **Berdintasun Kontseilua.** Talde feministek, emakumeen elkarteek, Kuadrillako emakumeek eta Berdintasun Unitateak osatua. Politiken diseinuan parte hartuko du eta Berdintasunarekin eta Lautadako emakumeen errealitatearekin lotutako gaiak aztertuko ditu.

#### ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO EGITURAK

- **Protokoloa Koordinatzeko Taldeko Batzorde Teknikoa:** Osasun, polizia, gizarte eta hezkuntza zerbitzuen arteko kolaborazio espazioa, Indarkeriaren II. Protokoloa ezartzeko.
- **Arabako Kuadrilletan berdintasun teknikarien sarea:** Arabako Kuadrilen berdintasun teknikarien arteko lan kolektiborako espazioa, Arabako Foru Aldundiak sustatua. Udalerrietan zein Kuadriletan euren lana sustatu eta hausnarketa zein ekintza kolektiboa lurralde ikuspegi batetik lagundu nahi du.
- **Berdinsarea.** EAEko Berdintasun Teknikarien koordinazio egitura. Sare honen misioa da tokiko administrazioek horretarako kudeatutako programa eta zerbitzuak sustatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea.



Ondoren, Lautadako Kuadrillari dagozkion egituren osaera, funtzioak eta funtzionatzeko moduak deskribatuko dira.

#### 4.1 BERDINTASUN UNITATEA

##### Osaera

- Kuadrillako Presidentea
- Berdintasun Teknikaria

##### funtzioak

- Lautadako Berdintasun unitatearen funtzioak Euskadiko Emakumedn eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean deskribatzen direnak dira.
- Berdintasun Unitateak Kuadrillako udalerriei laguntza teknikoa emango die, bai udalei, emakumeen elkarteei, gainontzeko elkarteei zein hezkuntza zentroei ere.
- Era berean, berdintasun teknikariak foru koordinazio saioetan parte hartuko du Arabako kuadrilletako gainontzeko berdintasun teknikariek eta Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzarekin.

##### Funtzionamendua

- Berdintasun Teknikaria aholkatzen dituen udalerrietatik pasako da udaleko langileekin komunikazioa eta harreman zuzena errazteko. Udal bakoitzean hilean emango duen denboraren banaketa udalerrien eta Kuadrillaren artean adostuko da.
- Beharrezko maiztasunarekin, berdintasun teknikaria Kuadrillako Presidentearekin bilduko da zuzentarauak eta bere eskumenen jardunaren oniritzia jasotzeko.

## 4.2 LAUTADAKO KUADRILLAKO SUSTAPEN POLITIKORAKO ETA TEKNIKORAKO EGITURAK

### PLANAREN KUDEAKETA, KOORDINAZIO ETA JARRAIPEN BATZORDE TEKNIKOA

#### Osaera:

- Lautadako eta bere udalerrietako teknikariak.

#### Funtzioak:

- Plan honetan aurreikusitako neurriak ezartzetik sortutako jarraipena egitea.
- Gobernu Onaren eta 4/2005 Legea betetzearen ardatzean sartutako neurrien elkarrekiko ezarpenean laguntzea.
- Jarduerak ezartzea koordinatzea, zerbitzu ezberdinen arteko deialdiak bikoiztea ekidinez.
- Funtzioen, eskumenen eta estrategien elkarrekiko ezagutza indartu, genero ikuspegia zeharka txertatzean aurrera egiteko.
- Funtzio horiek betetzea erraztera zuzendutako berdintasunaren alorreko eta genero ikuspegia duten formazioetara joatea.

#### Funtzionamendua:

- Sei hilean behingo bilerak.
- Kuadrillako Berdintasun Plana betetzetik sortutako ez-ohiko bilerak.

## PLANAREN JARRAIPEN ETA KOORDINAZIO BATZORDE POLITIKOA:

### Osaera

- Kuadrillako Presidentea.
- Aguraingo, Alegría-Dulantziko, Asparrenako, Barrundiako, Burgeluko, Iruraiz-Gaunako, Donemiliagako eta Zalduondoko Berdintasunerako Politiken ardura duten alkatetza edo zinegotzigoak.

### Funtzioak

- Berdintasunerako Politikaren elkarrekiko estrategia ildoak zehaztea.
- Urteko lan programazioa onartzea.
- Baliabide ekonomikoen eta giza baliabideen dotazioa onartzea.
- Urteko jarraipen emaitzak onartzea.
- Udalerrien arteko indar ekintza komunak adostea.
- 4/2005 Legea betetzen dela bermatzea.

### Funtzionamendua

- Urteko bilera.
- Kuadrillako Berdintasun Plana betetzetik sortutako ez-ohiko bilerak.

## 4.3 KOLABORAZIO ETA PARTAIDETZA SOZIALEKO EGITURAK

### LAUTADAKO BERDINTASUN KONTSEILUA

#### Osaera

- Kuadrillako udalerriren batean, edo kuadrilla mailan, emakumeen eta gizonen eskubide Berdintasunaren defentsan jarduerak burutzen dituzten elkarteak, federazioak edo emakume taldeak, eta euren egoitza Arabako Lautadako Kuadrillako udalerriren batean dutenak.
- Arabako Lautadako Kuadrillako udalerriren baten auzokideak diren emakumeak, norberaren izenean, Kontseiluan parte hartu eta ekarpenak egin nahi dituztenak.
- Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuari eta Burgeluko Udalari lotutako teknikariak.
- Parte-hartzaile berriak onartzea edo baztertzea bozkatu egingo da, osaera irizpideak betetzen badituzte, betiere. Gehiengo absolutua beharko da.

#### Funtzioak

- Aurreko artikuluan adierazitako helburuak betetzeko, Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Kontseiluari dagokio ondorengo funtzio eta jarduerak garatzea:
- Arabako Lautadako Kuadrillako udalerriri eta kontzejuetako herritarrengana zabaltzea, sensibilizatzea eta Berdintasunerako Kontseiluak jorratutako jarduera zein gaiak jakinaraztea.
- Sensibilizazio jarduerak antolatzea eta Kontseiluaren eskumenekoak diren gaietan aholkularitza ematea.
- Neurriak proposatzea eta administrazioari iradokizunak egitea.
- Arabako Lautadako administrazio publikoetan egiten diren Berdintasunerako Politika publikoen jarraipena egitea. Halaber, ebaluazioaren eta herritarrengan duen inpaktuaren jarraipena egitea.

#### Helburuak

- Emakumei parte-hartzeko aukera eskaintzea Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasunaren aldeko emakumeen elkarten bidez, gizarte politikak, ekonomikoak, kulturalak eta kirol politikak garatzen dituzten erakundeen bidez, baita norbanaren izenean ere.
- Berdintasun balioak pertsonen artean hedatzea, sexua edo generoa dela eta diskriminaziorik gabe, emakumeen eskubide eta interesak Berdintasunean defendatzea, eta gizartearen eremu ezberdinetan euren partaidetza eraginkorra sustatzea.
- Kuadrillaren eremuan sortutako elkarteak eta bestelako parte hartzeko zein gizarte ordezkartzarako organo edo erakundeen arteko kolaborazioa eta kooperazioa bultzatzea: emakumeak ahalduz, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna sustatzeko eta parte-hartze demokratikoaren kultura garatzeko jarduerak burutzen dituztenak.
- Administrazioaren aurrean solaskide balioduna izatea, eta kuadrillako informazioaren hartzaile eta igorle bezala jardutea, informazioa kolektiboari eta herritarrei orokorrean jakinaraziz eta zabalduz, kolektibo edo herritarren emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna sustatzeari dagozkion eskaerak Administrazioari bideratuz.
- Haurtzarotik hezkidetzara sustatzera bideratutako izaera ezberdineko politikak, programak, jarduerak edo ekintzak bultzatzea, haurrek, gazteek, benetako Berdintasunean oinarritutako balioekin hazi ahal izateko, eta horren ondorioz, Kuadrillan balio aldaketa progresiboa sustatzekotan.
- Udaketako eta kuadrillako politika zein zerbitzuek emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna bermatzen dutela, eta Berdintasunerako Kuadrillako planak ahal den neurrian gauzatzen direla zaintzea.
- Indarkeria matxista hautemateko eta dagozkion profesionalarengana bideratzeko "antena soziala" izatea.

## 4.4 ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO EGITURAK

### INDARKERIAREN AURKAKO II. PROTOKOLOAREN KOORDINAZIOA: MAHIA TEKNIKOA

#### Osaera

- Lautadako Kuadrillako Berdintasun Teknikaria.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako teknikariak: A eta B eremuetako gizarte langileak.
- Ertzaintza:
  - Vitoria-Gasteizko komisariako ordezkariak
- Osakidetza:
  - Arabako ESlA: asistentzia programetako arduradunak
  - Lehen Arretarako Unitatearen burua
  - Mahai teknikoaren osaera: Arabako Lautadako Kuadrillako Presidentea; Gizarte Langileak; Berdintasun Teknikaria. Idazkaritza Teknikoa; Komunitate Prebentziorako teknikaria; indarkeria matxista kasuei arreta emateko ardura duen Ertzaintzako Vitoria-Gasteizko komisariako agentea; Arabako Lautadako Osasun Zentroetako ordezkariak; Eskola Zentroetako ordezkariak, Lanbideko kuadrillako ordezkaria; GOfiko Indarkeria taldeko ordezkaria; Epailletza/Fiskaltzako ordezkaria.

#### Funtzioak

- Protokoloaren funtzionamendua eta erakunde arteko koordinazioa aztertzea, zabaltzea, inplementatzea eta ebaluatzea, baita arreta emandako kasuetan egindako jarduketak ere, egokituz jotzen denean. Bereziki, asistentzia ibilbidea utzi duten kasuak hautemango dira, eta arrazoiak aztertuko dira jardura estrategiak egiteko, baita euren segurtasunerako arrisku altuko adierazleak dituzten kasuak ere. Datuen konfidentzialtasuna errespetatuko da beti, eta onespina eman dutenen informazioa gordeko da bakar-bakarrik.
- Urtean behin behintzat arretari buruzko estatistikak aurkeztu, sinatzen duten erakundeetako politikak hobetzeko erabilgarriak izan daitezkeen arreta emandako herritarren ezaugarriak azpimarratuz.
- Protokoloaren hobekuntzak proposatu emakumeei emandako arretaren kalitatea handitzeko eta zerbitzu berrien proposamenak egitea hautemandako beharrak aztertu ondoren. Beharren urteko txostenak egitea, zerbitzu berriak proposatzeko eta emakumeei emandako arretaren kalitatea handitzeko protokoloa hobetzea.
- Indarkeria matxistaren kasuetan esku hartzea sustatzea, laguntzea eta Berdintasunerako Politikekin duen harmonizazioa berrikustea.
- Kuadrillako eta udaltzetako zerbitzu bakoitzean hautemandako beharrekin lotutako formazio jarraitua eskaintzeko programak diseinatzea.

#### Bileren maiztasuna

- Mahaia sei hilabete behin bilduko da eta modu ez-ohikoan larrialdi bat dagoelako behar den guztietan. Deialdia egiteko osatzen duten erakundeetako batek eskatzea nahikoa izango da.

## INDARKERIAREN AURKAKO II. PROTOKOLOAREN KOORDINAZIOA: MAHIA POLITIKOA

### Osaera

- Arabako Lautadako Kuadrillako Presidentea.
- Hura osatzen duten edo ordezkatzten dituzten udaletako alkateak. Egun, Kuadrilla osatzen duten udalerrietako alkateek osatzen dute.

### funtzioak

- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei arreta egokia emateko beharrezkoak diren baliabideak existitzen direla bermatzea, dotazio ekonomikoen bidez edota udalerriko beste erakundeekin akordioak eginez (adibidez, taxi eta garraio zerbitzua, biktimei dirulaguntzak...).
- Kuadrillako bizilagunak indarkeria kasu zehatzak gaitzesteko edo indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio jarduera zein mobilizazioak adosten diren ekintza publikoetara deitzea.
- Teknikarien jarduerak sustatzea lan egitean segurtasun baldintzak bermatuz, instalazioak hobetuz eta bere jarduerari laguntza zein babes politikoa emanez.
- Kuadrillako Presidenteak II. Protokoloaren eguneroko jarraipena egiteko ardura izango du.
- Berdintasun Teknikariak Mahai Politikoaren Idazkaritza izango du, aktak egingo ditu eta beharrezkoak diren dokumentuak bilduko eta eguneratuko ditu.
- II. Protokoloa eta indarrean dagoen bitartean egokituz jotzen diren aldaketak onartzea, baita Mahai Teknikoak aurkezten dituen urteko ebaluazioak ere.
- Koordinazioa bermatzea eta bestelako erakunde eskudunekin kolaborazioa sustatzea.

### Bileren maiztasuna

- Mahai Politikoa **sei hilabetean** behin bilduko da eta modu ez-ohikoan larrialdi bat dagoelako behar den guztietan. Deialdia egiteko osatzen duen erakundeetako batek eskatzea nahikoa izango da.

### Idazkaritza Teknikoa

- Idazkaritza honen ardura Berdintasun Teknikariarena izango da, funtzio hauekin:
- Mahai Politikoaren ohiko (bi aste lehenago) edo ez-ohiko deialdietara deitzea, eguneko gai-zerrendak eta aktak bidaliz.
- Mahai Politikoaren bilerak dinamizatzea, materialak edota jorratuko diren gaien arabeko beharrezko informazioa aurretik prestatuz.
- Politikariei jakinarazi emakumearen erabakiaren aurka doan esku-hartze bat egin behar den kasuetan, adingabeak arriskuan daudelako edo ofizioz salaketa jartzea baloratzen den beste faktoreak daudelako.
- II. Protokolo honetan aurreikusi ez diren eta berehalako erantzuna behar duten alderdi operatiboak ebaztea.

## 5. BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN EGITURA

Lautadako Kuadrillako Berdintasunerako II. Planaren helburuek administrazioaren barne funtzionamenduko erronkak zein emakumeen banakako ahalduntzea eta ahalduntze kolektiboa sustatzeko izaera sozialeko erronkak aurreikusten dituzte, baliabide eta zaintzak modu justuan banatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzea.

Batzuek eta besteek osatzen dute I. Planaren egituraren bi atal nagusiak. Hasteko, gobernu onean laguntzeko neurriak, administrazioan genero ikuspegia sartuz, eta bigarrenik, Berdintasun alorreko esku-hartze ardatzak.

### GOBERNU ONA:

4 programez eta 11 helburu estrategikoz osatutako multzoa da, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen aginduak biltzen eta zabaltzen dituztenak, euskal botere publikoen antolaketan eta funtzionamenduan Berdintasunaren printzipioa sartzeko ezartzen dituenak.

### BERDINTASUN EREMUAN ESKU-HARTZE ARDATZAK:

- Lautadako Kuadrillako II. Planak proposatutako gizarte eraldaketarako erronkak Berdintasunaren alorreko esku-hartze publikoa bideratzen duten 3 ardatzen inguruan antolatzen dira. Sei programa dira, ardatz bakoitzeko bi, honetarako: emakumeen ahalduntzea sustatzea, I. ardatzean; baliabide eta zaintzak banatzea bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarritz, II. ardatzean; eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko lan egitea, III. ardatzean.
- Ardatzeko bi programak garatzeko, helburu estrategikoak, eta horiek lortzeko neurri eta ekintza zehatzak planteatu dira.
- Helburu estrategikoak eta neurriak derrigorrez bete behar dira, ekintzak gertagarriak izan daitezkeen bitartean: egungo baldintzetan helburu estrategikoei eta proposatutako neurriei erantzunik onena eman dietenak bildu dira, baina aldatu daitezke egoera berrietara eraginkortasun handiagoz egokitzeko.
- Dokumentua amaitzean neurri bakoitzarentzat ardura duten egiturak, kronograma, ebaluazio adierazleak eta aurrekontua ezarri dira.



Programen zein helburu estrategikoen oinarria izan da EAEko VII. Plana, 4/2005 Legeak ezartzen duen bezala, beharrezkoak diren aldaketekin, araudi horrek onartzen duen moduan, Lautadaren diagnostikotik eta ebaluaziotik sortutako beharrei egokitzeko eta bere estrategia hobeto ikusarazteko. Egun, 4/2005 Legea berrikusten ari denez, eman daitezkeen aldaketak aintzat hartu dira, pasa den urtean publiko egin zen zirriborroaren arabera, batez ere ondorengo datuei dagokienez: aurrekontuei, Gobernu Onari, genero ikuspegia duen hirigintzari, baliabideen eta zaintzen banaketaren ardatzari eta, giza eskubideak urratzen dituen gizarte patriarkal baten ondorioz, emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria matxista motatzat kontzeptualizatzeari.

## 6. GOBERNU ONA

### A.- ZER DA GOBERNU ONA?

Gobernu Onaren kontzeptua emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzera bideratutako politika publikoak diseinatzeko eta garatzeko aukera ematen duten baldintzak sortzeko tresna gisa ulertzen da, Lautadako udalerrietan eta Kuadrillan justizia soziala eta giza eskubideak betetzen direla bermatzeko ezinbesteko baldintza bezala.

Honek, genero ikuspegia lehenetsun politiken definizioan barne hartzea dakar, baina baita praktikak eta lan prozedurak, erabakiak hartzeko egiturak eta Kuadrillako erakundeen balioak berdintasun printzipiora egokitzea ere.

Horretarako bi estrategia utziezin planteatu dira: genero *mainstreaming*a (zeharkakotasuna); gobernantzaren eta herritarren parte-hartzea.

- Genero ikuspegia lehenetsun politikoen artean sartzeko oinarritzko estrategia da genero *mainstreaming*a. Honek, politika publikoak genero arrakalak aintzat hartuz planifikatzea dakar, eta benetako berdintasunak aurrera egin ahala politika publikoek sortutako emaitza eta inpaktuak ebaluatzea, baliabide guztiak baldintza berdinetan eskuratzeko aukera izatea bermatzeko.
- Egiturak eta lan prozedurak egokitzeko planteatzen den estrategia gobernantza da, erakunde publikoen, merkatuaren eta gobernuz kanpoko erakundeen arteko interakzioa eta kooperazioa sustatzera bideratutako gobernatzeko modu bat bezala ulertzen dena, erabakiak hartzean eta horiek inplementatzean. Horretarako tresna nagusia herritarren parte-hartzea da, ordezkarietako demokraziaren osagarri gisa demokratikoagoa den komunitate bat eraikitzeko. Hori dela eta, plan hau betetzeko bermeetako bat da emakumeen ekarpenak sartzea.
- Berdintasun Plan honen bidez, LGTBI pertsonak babesteko araudi legala barne hartzeko asmoa dago, esaterako, 14/2012 Legea, *Transexualak Genero-Identitateagatik ez Baztertzeari eta Haien Eskubideak Aitortzeari buruzkoa*. Horretarako, hurrengo puntuak kontuan hartuko dira:
  - *Sexu- eta genero-aniztasuna*, sistema heteronormatiboak baztertzeko duena. Sexu-genero sistemaren aginduek sexu- eta genero-identitateei eragiten diete, diskriminazioak eraginez eta emakumeak edo eredu heteronormatibo horri erantzuten ez dioten pertsonak (lesbianak, gayak, transexualak, transgeneroak, bisexualak eta intersexualak) zapaltzen dituzten sistemak elikatuz.
  - *Genero-berdintasunaren kontzeptua*. Berdintasun horrek ez ditu emakumeak bakarrik hartzen Berdintasun- politika publikoen subjektu politikotzat, oinarrian patriarkatua eta heterosexismoa dauzkaten diskriminazioei aurre egiten dieten beste pertsona batzuk ere hartzen baititu.
- *Giza eskubideak*, LGTBI pertsonak ahalduntzea sustatzeko, pertsona horiek aurrez aurre daukaten indarkeria matxista murrizteko eta pertsona horien aurka ezartzen diren diskriminazioak ikusgarri egiteko eta jorrazteko ikuspegi modura hartuta, ikusmolde asistentzialista, patologizatzailea edo “*pinkwashing*” (Irudi instituzionalaren garbiketara) deiturikoa saihestuz.



## B.- IBILITAKO BIDEA ETA IBILI BEHARREKOA LAUTADAN GOBERNU ONARI DAGOKIONEZ

Marko honetatik abiatuta, Gobernu Onean laguntzeko Lautadako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak programetan antolatutako neurri sorta bat ezartzen du, 4/2005 Legearen errekerimenduei zein eremu ezberdinetako arauetan eta programetan jasotako konpromisoei erantzuna ematen dietenak, eta agerian uzten du udalerrien eta Kuadrillaren rol estrategikoa gizarte justuago eta berdintsuago baterantz aurrera egiteko, kudeaketa gardena bermatuz, eta herritarren eta bereziki emakumeen parte-hartzerako mekanismoak gaituz. Diseinua hasiera egoeraren diagnostiko batean oinarritu da, non hurrengo emaitzak jasotzen ziren:

### IBILITAKO BIDEA

- 2015etik berdintasun unitatea eta berdintasun teknikaria dago, 2018tik aurrera jardunaldi osoan.
- Urteroko planifikazio eta jarraipen prozesuak egonkortzea.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta erabilera ez-sexistaren gaineko giden banaketarekin aurrerapenak.
- Berdintasunerako Politiken komunikazio eta ikusgarritasuna handitzea web orrien, whatsapp, facebook bidez. Liburuxka eta kartelak.
- Urteko formazioa politikari eta teknikariei.
- Udal guztietan hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzeko buruzko berdintasun-klausulak sartzea, eta Aguraingo Udaleko kontratazio guztietan klausulak batzuk daude. Zalduondon berdintasun klausulak sartu dira HAPOan.
- Kuadrillako jarraipen eta koordinazio egitura politiko bat sortu, berdintasuneko elkarrekiko konpromisoak sortzeko egoki egindakoa egonkortzen duena.
- Erakunde arteko koordinazioaren sistematizazioa. AFA - Arabako Berdintasun Teknikarien Sarea, LAIAeskola, Berdinbidean eta urteko prozesuak- eta Emakunde eta EUDEL - Berdinsarea eta deialdi puntualak edo aldizkakoak-.
- Azken udal hauteskundeetan hautatutako emakume zinegotzi eta alkate kopuruak gora egin du. Are gehiago, Agurain, Dulantzi, Asparrena, Donemiliaga eta Burgeluko korporazioetan emakume gehiago daude gizonak baino.

### IBILI BEHARREKOA

- Aurrekontua beharretara egokitzea.
- Kuadrillako teknikarien koordinatzeko egitura sustatzea.
- Hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexistan sakondu eta politikari eta teknikarien deszentralizazio eta autonomia lortu.
- Datuak genero ikuspegitik bildu eta aztertu.
- Politikari eta teknikariek kapazitazio prozesua sistematizatu, prozesu forma hartzeko.
- Politika publikoen parte-hartzean parekidetasuna, bereziki Kontzejuetan.
- Araudi eta aurrekontuetan genero inaktuaren ebaluazioak egin.
- Udal- eta eskualde-eremuko sektore-politiketan genero-ikuspegia txertatzea.

Diagnostiko honetatik abiatuz, hauek dira proposatutako programak eta helburuak:

1. BULTZADA POLITIKOA	2. EZAGUTZAREN KUDEAKETA	3. GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN	4. KOORDINAZIOA ETA KOLABORAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1.1. Berdintasunerako Politiken jarraipena planifikatzea eta egitea.</li> <li>• 1.2. Berdintasunerako Politikak garatzeko aurrekontuak handitzea.</li> <li>• 1.3. Berdintasun araudia garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2.1. Politikari eta teknikariak Berdintasunarei buruzko formazioa eskaintzea.</li> <li>• 2.2. Berdintasuna barne eta kanpo komunikazioan sartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3.1. Sexuen araberako datuak biltzea, ustiatzea eta erabiltzea.</li> <li>• 3.2. Genero inpaktua ebaluatzeko esperientzia pilotuak egitea.</li> <li>• 3.3. Berdintasunerako klausulak sartu kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan.</li> <li>• 3.4. Genero ikuspegia sartzea sektore planetan eta zeharkako planetan, Udal eta eskualde-mailan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 4.1. Arabako Foru Aldundiaren koordinazio prozesuetan parte hartu.</li> <li>• 4.2. Emakundek eta EUDELEk antolatutako koordinazio eta kolaborazio prozesuetan parte hartzea.</li> </ul>

Helburu hauek betetzeko proposatutako neurriak eta jarduerak dira:

## 1. PROGRAMA. BULTZADA POLITIKOA

### 1.1. HELBURUA: Berdintasunerako Politiken jarraipena planifikatzea eta egitea

- **1.1.1 Urteko jarraipen tresnak mantentzea:** bilerak politikariekin, teknikariekin, elkarte ehunarekin eta gizarte eragileekin.
- Urtero planifikazio bilerak egitea Berdintasun Unitatearen eta Kuadrillako zortzi udalerrietako alkatekin eta presidentziaren; Batzorde Politikoa, Batzorde Teknikoa, zortzi udalerririk bakoitzeko elkarte nagusien eta Lautadako Berdintasun Kontseiluaren artean.
- **1.1.2 Inplikaturako zerbitzu teknikoekin eta politikariekin komunikazioa eta koordinazioa hobetzea, berdintasun-politiketan mainstreaming (zeharkakotasuna) ezartzeko eta jarraipena**
- Berdintasun-politiketan, mainstreaming-estrategian egindako aurrerapenak urtero koordinatzea inplikaturako zerbitzu teknikoekin, Berdintasun-zerbitzuak edo bere ekimenez proposaturako proposamen teknikoak haiek aplikatu ondoren, informazio hori berdintasun-zerbitzuari itzuliko diote, urteko aurrerapen jarraipena hobetzeko.
- **1.1.3. Urtero, Urteko Plan Operatiboa egitea, Indarraldiaren amaieran plana betetzeko**
- Urteko Plan Operatibo bat egitea, Kuadrillan, Berdintasunerako Batzorde Politikoa eta Berdintasun Kontseiluan lortu diren akordioak jasoko.
- Kuadrillako Urteko Plan Operatiboaren berri ematea Arabako Lautadako Kuadrillako Batzarrari.
- **1.1.4 Urteko jarraipen memoria egitea, lortutako emaitzak zein lorpenak agerian jartzeko.**
- Urteko Jarraipen Memoria egitea, Kuadrillako lehendakariari, 8 udalei eta Kuadrillako Batzarrari bidaltzeko.
- Jarraipen-memoria urtero aurkeztea udalei, Berdintasun Kontseiluari eta Arabako Lautadako Kuadrillako Batzarrari.

### 1.2. HELBURUA: Berdintasunerako Politikak garatzeko aurrekontuak handitzea

- **1.2.1 Urteko planifikazio operatiboa egiteko beharrezkoak diren aurrekontuak onartzea.**
- Urtero zortzi udalerrietako alkatekin egiten diren bileretan, urteko Plan Operatiboaren beharren eta Berdintasunerako Legearen aginduen arabera aurrekontua adostea.
- **1.2.2 Berdintasunerako Politikak finantzatzeko laguntza eta dirulaguntzak eskatzea.**
- Urtero, dirulaguntzen eskaria aurkeztea plan honen jarduerak finantzatu ditzaketen erakundeei.
- Urtero, Lautadako elkartei gogorarazi eta jakinarazi jaso ditzaketen berdintasunaren inguruko dirulaguntzen deialdiak.

### 1.3. HELBURUA: Berdintasun araudia garatzea

- **1.3.1 Kuadrillako udalerrietan ordenantzak egiten jarraitzea.**
- Berdintasunerako ordenantza bat gutxienez onartzea.

## 2. PROGRAMA. EZAGUTZAREN KUDEAKETA

### 2.1. HELBURUA: Politikari eta teknikariak Berdintasunarei buruzko formazioa eskaintzea

- **2.1.1 Kuadrillako politikari eta teknikarien formazio beharren planifikazioa egin AFArekin batera.**
- Urteko Planak barne hartuko du, gutxienez, Batzorde Politikoa edota Batzorde Teknikoa edota gainerako teknikarien prestakuntza bat, edota udaletako eta koadriletako politikarien urteko prestakuntza bat.
- Urtero, zehaztutako ikastaroak antolatzea, horiek ezartzea Arabako Foru Aldundiarekin eta Plana ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak eman ditzaketen beste erakundeekin –Emakunderen Nahiko, Gizonduz eta Jabetuz programak, eta Virginia Woolf Basqueskolako formazio programa– edota Arabako Foru Aldundiaren Laia Eskola programarekin.

### 2.2. HELBURUA: Berdintasuna barne eta kanpo komunikazioan sartzea

- **2.2.1 Lautadako udalen eta Kuadrillaren erakunde komunikazioetan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea.**
  - Kuadrillako teknikariei eta komunikazio arduradunei zuzentaraua bidali, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiteko eta zalantzarik izatekotan Berdintasun Unitatearekin kontsultatzeko.
  - Politikari eta teknikariekin aholkularitza lana egitea eskatzen dutenean.
  - Komunikazio publiko oro berrikusi: diskurtso edo komunikatuak, udalerrietako eta Kuadrillako web orrialdeetako argitalpenak, EHAOk argitalpenak.
- **2.2.2 Urtean Berdintasunaren inguruan egiten diren ekintzen berri ematea.**
  - Plan hau ezartzearekin lotuta antolatzen diren ekintzak zabaltu udaletako eta Kuadrillako web orrietan, wasapen, emailen eta sare sozialen bidez.
  - Lautadako komunikabideetan Berdintasunari buruzko berriak argitaratzea.

### 3. PROGRAMA. GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

#### 3.1. HELBURUA: Sexuen araberako datuak biltzea, ustiatzea eta erabiltzea

- **3.1.1 Sexuen araberako datuak jasotzeko tresnen garapenean laguntzea eta aholkuak ematea Lautadako udaletako eta Kuadrillako teknikariei.**
  - Lautadako udaletako eta Kuadrillako teknikariek bilera bat egitea zer datu jasotzen dituzten berrikusteko eta nola banatu ikusteko.
  - Jasotzen diren datuen zerrendarekin eta datuak sexuen arabera banatzeko eta erabiltzeko txosten bat egitea eta udaletako Alkatetzetara eta Lautadako Kuadrillako Presidentziara bidalzea.
- **3.1.2 Lau urtean behin, Berdintasun Planarekin bat, sexuen arabera banatutako datuen ustiapen eta erabilera egitea Kuadrillan Berdintasunerako Politikak ezartzeko graduaren garapena aztertzeke.**
  - Banatutako datuen memoria Berdintasun Planaren amaierako ebaluazioan sartzea eta Kuadrillan datuen banaketa betetzen den ebaluatzea.

#### 3.2. HELBURUA: Genero inpaktua ebaluatzeko esperientzia pilotuak egitea

- **3.2.1. Teknikarik tresnaren erabileran formatu proiektu pilotuak garatzen doazen heinean.**
  - Lautadako udaletako eta Kuadrillako teknikariak formatu Genero Inpaktuko Ebaluazioak egiteko metodologian formazio-ekintza esperientzien bidez, proba pilotu baten bidez.

#### 3.3. HELBURUA: Berdintasunerako klausulak sartzea kontratuetan eta dirulaguntzetan

- **3.3.1 Berdintasun klausulak barne hartzen dituzten Lautadako udalen eta Kuadrillaren dirulaguntza eta kontratazio deialdien kopurua areagotzea.**
  - Udaletako eta Kuadrillako idazkariekin genero ikuspegiarekin lotutako formazio ekintza egitea, formazioa amaitzean klausulak dauden dirulaguntza guztietan egoteko eta etorkizunean ezartzen jarraitzeko gida bat izateko.
  - Udaletako eta Kuadrillako idazkariekin genero ikuspegiarekin lotutako formazioa egitea, formazioa amaitzean duela gutxiko edo berehalako adibideekin lan egiteko eta etorkizunean ezartzen jarraitzeko gida bat izateko.

#### 3.4. HELBURUA. Genero ikuspegia sartu sektore planetan eta zeharkako planetan

- **3.4.1 Lautadako udaletan eta Kuadrillan ezartzen diren sektore planen eta zeharakako planen diseinuan teknikariak eta politikariak aholkatzea.**
- Batzorde Teknikoaren bileretan, sail bakoitzaren oinarri diren planak zeintzuk diren lehentasuna duen gai bezala lantzea. Udal eta Kuadrillako Sektore planak aldatuko direnean, Berdintasun Unitatearekin kolaboratzea plan horien diseinuan genero ikuspegia zeharka txertatzearren.

## 4. PROGRAMA. KOORDINAZIOA ETA KOLABORAZIOA

### 4.1. HELBURUA: Arabako Foru Aldundiaren koordinazio prozesuetan parte hartzea

#### •4.1.1. Berdinbidean programaren urteko bileretan parte hartzea

- AFAk Berdinbidean Zerbitzutik deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.

#### •4.1.2. LAIAeskola programaren urteko bileretan parte hartzea

- AFAk LAIAeskola Idazkaritza Teknikotik deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.

#### •4.1.3. AFAk planteatutako Kuadrillak koordinatzeko prozesuetan parte hartzea

- AFAk Kuadrillako Berdintasunerako Politikak koordinatzeko deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea, baita Arabako Lautadako ikastetxeekin eta Gaztelekuekin ere.

### 4.2. HELBURUA: Emakundek eta EUDELeK antolatutako koordinazio eta kolaborazio prozesuetan parte hartzea

#### •4.2.1. Berdinsarea programaren urteko bileretan parte hartzea

- AFAk Berdinsarea Zerbitzutik deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.

#### •4.2.2. Beldur Barik programaren urteko bileretan parte hartzea

- Beldur Barik programak edo eskualdeko berdintasun-politikak garatzeko estrategikotzat jotzen diren Emakunderen beste programa batzuek deitutako bileretara joatea eta programa horiekin koordinatzea, baita Arabako Lautadako ikastetxeekin eta Gaztelekuekin ere.

# 7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN ESKU-HARTZE ARDATZAK

## I. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

### A. ZER DA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA?

Ahalduntzearen definizio ezberdinak daude. Testu honen arabera, EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planaren zuzentarauetara jarraiki, Marcela Lagarde y de los Rios antropologoa erreferentetzat duena, ahalduntzea da *“emakumea besterentzat izateari uzteko prozesua, besteen objektua, historiarena, politikarena eta kulturarena, eta bere bizitza propioaren subjektu bihurtzen da, bere buruarentzat izatearena, historiaren, kulturaren, politikaren eta bizitza sozialaren protagonista”*.

Eremu sozio-politikoko protagonismo hori lortzeko, beharrezkoa da banaka eta kolektiboki kontzientzia hartzeko prozesu bat. Banakakoa emakumeek existitzen diren desberdintasunen gaineko kontzientzia hartzeko prozesua beharrezkoa duelako, sistema patriarkal eta androzentriko baten barruan, bere autonomia, autoestimua eta autozaintza egonkortzeko helburuz, eta eragiteko eta erabakitzeko gaitasuna modu librean gauzatu ahal izateko. Eta kolektiboa emakumeen interesak erlazionatzen diren prozesu bat ere beharrezkoa duelako, baliabide material eta sinbolikoen eskuratzeko, erabilera eta kontrolean bere boterea handitzeko eta erabakiak hartzean eta gizarte aldaketan eragina izateko eta parte hartzeko, kokaleku kolektibo sendoago batetik. Prozesu zabalago hori lortzeko estrategia bat da. Horren bidez, emakumeak bizitza sozialaren protagonista bihurtzen dira, aktibismo horrek jarduera politikoa ere eragina duela ulertuz.

Ikuspegi horretatik, Lautadako II. Planak emakumeen ahalduntzean lagundu nahi du emakumeen banakako ahalduntzearen eta ahalduntze kolektiboaren bidez, ahalduntze sozial zein politikoa.

## B.- LAUTADAN EMAKUMEEN AHALDUNTZEAN IBILITAKO ETA IBILI BEHARREKO BIDEA

### IBILITAKO BIDEA




Sakabanatutako ekintzetatik planteamendu estrategikora pasatu:

- Berdintasunerako egun garrantzitsuak ospatzea, Planaren helburu estrategikoekin lotuta eta Kontseiluarekin koordinatuta.
- I. Planeko elementu estrategikoekin lotutako Kuadrillako topaketa antolatzea.
- Berdintasunarako hausnarketarako espazioak eskaintzea, urte osoan egonkorrak direnak.
- Udalerri guztiek nabarmen lagundu dute jarduerak proposatzean eta gauzatzean, euren udalerriko eskaera zehatzei erantzuna emanez. Eremu kulturelek genero ikuspegia barne hartu ohi dute.

Banakako ahalduntzea eta balio aldaketa

### IBILI BEHARREKOA

- Banakako ahalduntzerako planteamendu estrategikoak garatzea.
- Udal logikaren espazioak ahalduntze kolektiborako ikuspegi estrategikoa garatzea lortzea, hau da, udalerrri bakoitzeko jarduerak emakume gehiagorengan interesa sortzea lortzea.
- Inguruko udalerrietako jardueretan parte hartzea erraztea lortzea.
- Kultura eta kiroletan genero ikuspegia sartzea sistematikoagoa izatea eta lortutako lorpenen garapena kudeatzea lortzea.



### IBILITAKO BIDEA



Kuadrillako emakumeen elkartegintza mugimenduarekin harremana.

- Arabako lehenengo Kuadrillako Kontseilua sortzea. Egonkor mantendu da eta bitartekari dabil berdintasunerako ekintzak diseinatzen. Elkarteen zein emakumeen banakako parte-hartzea dauka.
- Lider diren emakumeen presentzia sustatzeko dinamikak:
  - Kontzejuetan, horietan emakumeen presentzia sustatzeko jardunaldiak sortuz.
  - Bide sozial eta politikoan, Arabako Lautada Virginia Woolf Basqueskolan parte hartuz.

Ahalduntze kolektiboa: soziala eta politikoa

### IBILI BEHARREKOA

- Berdintasun Kontseilua egonkortzea parte hartzen duten emakumeen eta ordezkaturako elkarten zabalpenaren bidez.
- Beste elkarte mugimenduen emakumeekin harremana, genero ikuspegia duten ekintzen garapenean laguntzeko.
- Udalerrri ezberdinetako elkarten arteko interrelazioa sustatzea, elkarrekiko laguntza handiagoa eta elkarrekiko ikuspegi estrategikoa lortzeko.
- Emakumeek kontzejuetan eta udal politikan duten presentzia laguntzen jarraitzea, atzera pausak ekiditeko.





Beraz, ardatz honek bi programen inguruan artikulatzen ditu aurrerapenak eta erronkak:

- Lehenengoa **banakako ahalduntzea laguntzera** bideratua: programa honekin emakumeen autonomiaren, autoestimua eta autozaintzaren garapenean lagundu nahi da, Lautadako emakumeengan genero kontzientzia sortuz, kultura eta kirol jardueretan genero ikuspegia sartuz, euren auto-zaintza errazteko eta kultura zein kirol programazioak genero kontzientzia hori sortzen eta euren banakako ongizatea eta osasuna hobetzen laguntzen duela bermatzeko.
- Bigarrena **ahalduntze sozial eta politikorako laguntzari** buruzkoa da: prozesua ez da banakakoan amaitzen, espazio kolektibora pasatzen da. Modu horretan, banakotasunetik eta subjektibitateetik egindako lana emakumeentzat baliagarria izango da euren interes kolektiboen inguruan antolatuz: genero interesak. Programa honek Lautadako emakumeen interesak lotuta egoteko prozesuarekin lotutako helburuak barne hartzen ditu, euren boterea handitzeko eta erabakiak hartzean eta gizarte aldaketan parte hartzeko, kokaleku kolektibo sendoago batetik. Era berean, banakako eremura igarotzeko ezinbestekoa da Berdintasuna espazio politiko ezberdinetatik sustatzea, emakumeek horietan parte hartzea sustatuz mugimendu feministaren printzipioen ezagutzaren eta defentsaren bidez.

Diagnostikotik ateratako erronkak ondorengo helburu operatiboen bidez jorratuko dira:

#### I. PROGRAMA: BANAKAKO AHALDUNTZEA SUSTATZEA: AUTONOMIA, AUTOESTIMUA ETA AUTOZAINZEA

- 1.1. HELBURUA: Lautadako herritarrak sentsibilizatzea Berdintasunak euren komunitatean egindako ekarpenaren ganean, Berdintasuna justizia sozialarekin lotzen duten eta emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna arazo larritzat jotzen duten pertsonen kopurua areagotuz.
- 1.2. HELBURUA: Kirolean eta kulturaren dauden genero arrakalak murriztea, emakume eta nesken parte hartzea handituz eta genero ikuspegia sartuz elkarteetan eta Lautadako Kuadrillako erakundeen eskaintzan.
- 1.3. HELBURUA: Diskriminazio anizkoitzaren arloan identifikatzea eta lan egitea, batez ere LGBTBI kolektiboaren beharrei dagokienez.
- 1.4. HELBURUA: Emakume migratzaileen edota arrazizatuen kolektiboaren behar nagusiak identifikatzea eta horiek lantzea

#### II. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOA SUSTATZEA: SOZIALA ETA POLITIKOA

- 2.1. HELBURUA: Lautadako mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak indartzea. Horretarako, feminismoa ezagutzen duten pertsonen kopurua handitzea, euren burua feministatzat duten pertsonen kopurua areagotzea eta berdintasunaren alde lan egiten duten elkarten zein jardueren kopurua handitzea.
- 2.2. HELBURUA: Lautadako emakumeek erabaki politikoak hartzeko lanpostuetan duten eragina handitzera bideratutako laguntza eta trebakuntzarako programak areagotzea.

Aldi berean, helburu operatibo hauek ondoren deskribatuko diren neurrietan eta jardueretan zehaztu dira.

## I. PROGRAMA: BANAKAKO AHALDUNTZEA SUSTATZEA: AUTONOMIA, AUTOESTIMUA ETA AUTOZAINZA

**1.1. HELBURUA:** Lautadako herritarrak sentsibilizatzea Berdintasunak euren komunitatean egindako ekarpenaren inguruan, Berdintasuna justizia sozialarekin lotzen duten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna arazo larritzat jotzen duten pertsona kopurua

- **1.1.1. Urtero emakumeen elkarte mugimendua eta Mugimendu Feminista laguntzea Lautadako Kuadrillan eta hura osatzen duten udalerrri bakoitzean LAIAeskola Arabako Ahalduntze Eskolako ekintzak planifikatzeko.**
- Berdintasun Kontseiluarekin eta Lautadako udalerrietako emakumeen elkartearekin eta Mugimendu Feministarekin bilerak egitea emakumeen interesak zehazteko foro bakoitzak beharrezko duen maiztasunean ahalduntzearen inguruan.
- **1.1.2. Data garrantzitsuak Berdintasunaren inguruan egindako aurrerapenak eta dauden erronkak ikusarazten dituzten sentsibilizazio eta formazio jarduerekin ospatzea: M8 eta M17**
- Urteko kanpainak Lautadako Berdintasun Kontseiluak zehaztutako interesen arabera antolatu, beste erakundeetatik datozen baliabideak aprobetxatzeko beharra aintzat hartuz –AFA, Emakunde– eta indarrak batzeak estrategikoki duen garrantzia.
- **1.1.3. Urtero Berdintasunerako Kuadrillako Topaketa bat antolatzea.**
- Eskualdeko Topaketa Berdintasun Kontseiluarekin, udalerrietako alkateekin edota haien eskuordetutako zinegotziekin antolatzea eta ebaluatzea.
  - **1.1.4. Lautadako ingurumen, kultura, kirol eta euskara mugimenduko emakumeak berdintasunerako jardueretan inplikatzeko.**
- Kultura, Euskara eta Ingurumen zerbitzuekin koordinatzea harremana duten elkarten artean Berdintasunerako jarduerak zabaltzeko.

**1.2. HELBURUA:** Kirolean eta kulturean dauden genero arrakalak murriztea, emakumeen eta nesken parte hartzea areagotuz eta genero ikuspegia txertatuz elkarteetan eta Lautadako Kuadrillako erakundeen eskaintzan.

- **1.2.1. Kirol politikak genero ikuspegitik garatzea.**
- Lautadako emakumeei eta batez ere, kirol elkarteetan parte hartzen dutenei, kirolaren eremuan dituzten beharrei buruz galdetu, genero ikuspegia barne hartzen duten Kuadrillako ekintzak sustatzeko.
- **1.2.2. Kultura politikak genero ikuspegitik garatzea.**
- Jaien eta ekitaldien programak genero-ikuspegiarekin gauzatzeko gida bat egitea.
- Kultura teknikariekin lan egitea Kultura Saileko urteko ekimena edo ekimenak zehazteko, udalerrri bakoitzean garrantzitsuenak direnak, eta genero ikuspegia sartzeko aholkularitza eskaintzea.

### •1.3. HELBURUA: Diskriminazio anitzak identifikatzea eta lan egitea, batez ere LGBTI kolektiboaren beharrei dagokienez

- **1.3.1. LGBTI kolektiboarekin, dibertsitate funtzionala duten pertsonekin, adinekoekin eta gazteekin lan egitea, Sexu-orientazioengatik eta arauz kanpoko genero-identitateengatik, ezaugarri fisikoengatik eta adinagatik, diskriminazio anitzen ondorioak ezagutzeko zabaltzeko eta murrizteko.**
- Lautadan normatiboak ez diren sexu orientazioak dituzten pertsonen diskriminazio eta beharren gaineko diagnostikoa egitea eta hedatzea.
- Askotariko diskriminazioaren ondorioak aztertze eta zabaltzeko interesa duten elkarrekin eta herritarrekin lan egitea: arauz kanpoko sexu-orientazioa duten pertsonekin, dibertsitate funtzionala duten pertsonekin, adineko eta gazteekin.

### 1.4. HELBURUA: Emakume migratzaileen edota arrazizatuen kolektiboaren behar nagusiak identifikatzea eta horiek lantzea

- **1.4.1. Emakume migratzaileen edota arrazizatuen kolektiboarekin lan egitea, eta genero, jatorri, etnia/arraza, baliabide ekonomiko, hizkuntza eta abarren arabera diskriminazio anizkoitzaren ondorioak zabaltzea eta murriztea.**
- Emakume migratzaile eta/edo arrazizatuen diskriminazio anizkoitzak dituen ondorioak aztertze eta murrizteko interesa duten elkarrekin eta herritarrekin lan egitea, haien arteko eta bertako emakumeekin harremanak sustatuz.
- Helburu horren betearazpena beste plan sektorial batzuekin koordinatzea, Plan honen helburuarekin bateragarriak izan daitezkeen Plan sektorialak dituzten udaletan.

## II. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOA LAGUNTZEA: SOZIALA ETA POLITIKOA

**2.1. HELBURUA:** Lautadako mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak indartzea. Horretarako, feminismoa ezagutzen duten pertsona kopurua handitu, euren burua feministatzat duten pertsonen kopurua handitzea eta berdintasunaren alde lan egiten duten elkarten zein jardueren kopurua areagotzea

- **2.1.1. Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak laguntzea, Lautadako emakumeen arteko ahizpatasuna sustatzeko.**
  - LAIA eskolaren barruan, coaching, autokudeaketan aholkularitza, praktika onen trukaketa jarduerak egiteko planifikazioaren parte bat erreserbatzea, mugimendu feministarentzat eta emakumeen elkarteentzat, elkarre mugimenduaren formazioa sustatzeko eta autonomiarako tresnak emateko.
  - Talde feministak eta emakume elkarteak laguntzea herritarrak erakartzeko jai eta ospakizunen antolaketan, ezagutarazteko eta euren jardueretan, parte hartzeko proposatzen direnean, laguntzeko.

**2.2. HELBURUA:** Lautadako emakumeek erabaki politikoak hartzeko lanpostuetan duten eragina handitzera bideratutako laguntza eta trebakuntzarako programak areagotzea

- **2.2.1. Virginia Woolf Basqueskolan parte hartzen jarraitzea, Lautadako Kuadrillako emakume politikoak laguntzeko.**
  - Virginia Woolf Basqueskolako idazkaritza teknikoarekin biltzea eta bilera horietan hartutako erabakietan oinarritutako lanak egitea.
  - Virginia Woolf Basqueskolari Arabako Lautadako Kuadrillako emakume politikarien beharrak jakinaraztea, programa horietan sartzeko eta parte hartzeko.
- **2.2.2. Arabako Lautadako kontzejuetan parte hartzen duten emakumeentzako prestakuntza-programak edo topaketak mistoak bultzatzea.**
  - Gutxienez, bi topaketa egitea kontzejuetan: lehena, emakumeei zuzendua, eta bigarrena, mistoa: bata, hauteskunderen aurrekoa, kontzejuetako emakume guztiei zuzendua haien parte-hartzea bultzatzeko; eta bestea mistoa, kontzejuak eratu ondoren.

## II. ARDATZA: BALIABIDEAK ETA ZAINTZAK BANATZEA BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ERDIGUNEAN JARRIZ

### A. ZER DA BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ETA ZER DAKAR BALIABIDEEN ETA ZAINTZAREN BANAKETAK?

Pertsonen bizitzak saihestezinak diren oinarrizko bi dependentzia erakusten ditu behintzat: naturaren menpe gaude bizitzen jarraitzeko behar dugun guztia hortik datorrelako, eta uneren batean edo bestean beste pertsonen menpe gaude, gure bizitzetan eta bizitzaren etapa batzuetan besteetan baino gehiago besteen zaintza behar dugulako. Gizakiok jaiotzen garenetik gara ahulak, gaixotzen gara, zahartzen gara eta azkenean hil egiten gara, eta osasuntsu gaudenean eta gazteak garenean ere behar afektiboak ditugu, besteekin harremanak izateko testuinguru batean bakarrik ase daitezkeenak.

Hala ere, egungo sistema sozioekonomikoak bi dependentzia horiek aintzat ez hartuz funtzionatzen du, pertsonen eta munduaren arteko apurketa bat ezarriz, eta bizitza mantentzeko zaintzek duten garrantzia aitortu gabe, lan horiek ordainduta egon ala ez, edo zaintza beharrak modu egokiak asetu gabe. VII. Berdintasun Planean adierazten den bezala, zaintzen oinarrizko giza beharrak asetzeari emakumei egozten zaie modu naturalean. Lan horiek oraindik ez dira analisi makroekonomikoan ikusten, modu prekarioan garatzen dira, munduko emakume guztien bizitzak baldintzatzen dituzte, eta *zaintzen zibilizazio krisia* deitutakoa ekarri dute.

Zaintzen gaia Lautadako Kuadrillako Berdintasun Planetan jorratu da erantzunkidetasunerako neurrien bidez, gizonak lanetan eta tradizionalki emakumeenak izan diren zaintza roletan inplikaturik, eta batez ere ustez aurkakoak diren eremuak bideragarri egiteko, “*adiskidetzeko*”, kasu honetan bizitza pertsonala, familiarra eta lana. Baina eremu hauek ez dira elkarren aurkakoak, baizik eta pertsona bakoitzaren behar produktiboen zein erreproduktiboen parte dira, eta zaintza lanetako erantzunkidetasunak gizonen beharrezko inplikazioan eragiteaz gain erakundeen eta, orokorrean, sistema sozialaren beharrezko erantzunkidetasunean ere, bizitza mantentzeko eta bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko lan bezala.

Ikuspegi honetatik, ez da bakarrik banakakoan aurkako bizitza eremuak adiskidetzeari, ezta gizonak feminizatutako, aitortu eta ordaindu gabeko lanetako erantzunkidetasuna onartzea, baizik eta gizarte sistemaren eraldatzen laguntzea, baliabideen, espazioen, denboreen eta zaintzen banaketa simetrikoagoa lortzeko, Amaia Pérez Orozcok dioen bezala, baliabideen banaketa hori “*bizitzeko moduko bizitzak*” lortzera bideratuz. Gainera, zaintzak testuinguru honetan ulertzen ditugu, Berdintasunaren VII. Planaren zirriborroak dioen bezala, “*zaintza beharrak asetzeko garatzen ditugun jarduerak, ez bakarrik familian ordaindu gabeko etxeko lana izendatzen denaren bidez egiten dena. Izan ere, zaintza lanak ordainduta egon daitezke edo ez*”.

<sup>1</sup> Perez Orozco, Amaia. *De vidas vivibles y producción imposible*. 2012. 15. 3.

<sup>2</sup> Gálvez Muñoz, Lina (zuz.). *La economía de los cuidados*, Deculturas Ediciones, Sevilla, 2016, 20 orr.

Ikuspegi hau, Amaia Pérez Orozcoren hitzetan berriz ere, baliabideak birbideratzeko beharra dakar, bitzta jasateko zaintzen zentralitatea aintzat hartuz, izaki interdependentek garela onartuz, bizirauteko besteen beharra dugula. Interdependentzia hori ez dela banaketa eredu asimetrikoen bidez kudeatu behar, non zamak feminizatutako pertsona edo kolektibo batzuen gain erortzen diren, gainera kalitatezko enpleguak lortzea mugatzen dutenak, eta beharrezkoa dela bitzta jasagarria izateko oinarritzko lanetan erantzukizun kolektiboa onartzeko aukera ematen duten ereduak bilatzea.

## B. BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ERDIGUNEAN JARRIZ BALIABIDEAK ETA ZAINZAK BANATZEAREN INGURUAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILI BEHARREKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Udalerrri guztietan eskaini da haurtzaindegi zerbitzua berdintasunerako udal jardueretan parte hartzea errazteko.
- Eskola oporretan lasaitze neurriak ezarri dira.
- 2018an Kuadrillak lurraldean pobrezia-aren feminizazioaren gaineko ikerketa laguntzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartu zuen.
- Gizonak kontziliazioari eta erantzunkidetasunari buruz kontzientziatzeko neurriak diseinatu dira, jardunaldi zehatzen bidez.
- Maskulinitate berriak eta zaintzak lantzeko jarduerak bat egin da.

### IBILI BEHARREKOA

- Berdintasunerako jardueretan haurtzaindegi zerbitzua badago eta askotan erabiltzen ez bada ere, badaude zerbitzu hau ez badago elkarte jardueretan edo jarduerak kolektiboetan parte hartu ezin duten emakumeak. Bereziki emakume migratzaileek adierazi dute prozesu parte-hartzaileak gabezi hau estaltzeko autoantolaketa moduak garatzen ari dituztela, bikote batek umeak zainduz besteek elkarte jarduerak egiten dituzten bitartean. Beraz, zerbitzu hauek emateari buruzko hausnarketa egin beharra dago, eta diskriminazio anitzaren eragina aintzat hartu kendu aurretik.
- Lautadan, parte hartu duten emakumeek adierazi dute euren inguruan erantzunkidetasun maila baxua dela, eta gizonak zaintzetan inplikatzeko jardueretan partaidetza baxua izan ohi da. Estrategia berriak sortzeko beharra dago.
- Ez dago Kuadrillako dependentzia duten pertsonen edo zainzaileen behar eta eskarien gaineko daturik. Dependentziarako arretan genero ikuspegiari buruzko diagnostiko bat egin beharko litzateke.
- Adinekoak herritarren zati handia dira. Adineko emakumeen ahalduntzeari arreta ematea eta kolektibo honen arretarako zerbitzuetan eta baliabideetan genero ikuspegia txertatzea ezinbestekoa da, ez bakarrik normalean feminizatutako talde bat delako, zaintza beharrak dituztenean normalean beste emakumeengandik ere jasotzen dituztelako: bai espazio publiko eta gutxi ordainduta dagoenetik, bai espazio pribatutik zein doakotik.
- Baliabide ekonomikoak eta ordaindutako enplegua lortzea Kuadrillan oso ezberdina da. Emakumeen batz besteko langabezia tasa % 6,5ekoa da, eta % 4,9 gizonena. 2018an egindako kontratu guztien % 39 bakarrik egin zitzaizen emakumeei, eta horietatik % 92,5 aldi baterako bakarrik izan ziren. Kuadrillan ezin izan da lurren titulartasunaren eta landa emakumeen benetako egoera ekonomikoaren gaineko daturik lortu.
- Genero ikuspegia hirigintzan sartzea ezinbestekoa da potentzialki dependenteak diren pertsonen autonomian laguntzeko, zaintzetarako eta hiri erabiltzeko eta gozatzeko eskubidea gauzatzeko paritatea bermatzeko. Zentzu honetan aurrera pausak eman dira, HAPOn kontratazioan Berdintasunerako klausulak sartuz, baina horren gaineko gomendioen eta garapen berrien berri izan behar da.

- **Zaintzen banaketa eta ekonomia feminista** programaren bidez Lautadan ekonomia feminista ezartzeari, erantzunkidetasuna ezartzeari buruzko hausnarketa garatzeko lan egitea proposatu da, ebaluazioak erronka garrantzitsua dela agerian uzten baitu, eta hezkidetzan lan egitea Berdintasunarekin, zaintzen garrantziarekin eta bizitzaren jasangarritasunarekin lotutako balioak transmititzeko txikitatik, hezkuntza formaleko eta informaleko espazioetan.
- **Bizitzaren jasangarritasunerako espazioak eta baliabideak banatzea** programaren bidez emakumeentzako autonomia ekonomikoa sustatu da, pobrezia-aren feminizazioari, enpleguaren sustapenari eta landa emakumeen lurren jabetza eskuratzeko ekitateari buruzko lanaren bidez, eta espazioak aztertzen dira, zaintzak laguntzen dituen udal hirigintza eredu baten laguntzaz.

Programa hauek garatzeko helburu operatiboak dira:

### III. PROGRAMA: ZAINZEN BANAKETA ETA EKONOMIA FEMINISTA

- 3.1. HELBURUA: Lautadatik bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen eredu nola lagundu aztertzeke eztabaida publikoa sustatzea.
- 3.2. HELBURUA: Lautadako Kuadrillako ikastetxeetan hezkidetzatxertatzen jarraitzea, genero ikuspegia sartuz kultura, politika eta praktiketan, eta emakumeen eta feminismoaren ekarpen soziala eta historikoa sartuz hezkuntza proiektuen edukien artean.

### IV. PROGRAMA: BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK BANATZEA BIZITZA JASANGARRIA IZATEKO

- 4.1. HELBURUA: Pobrezia-aren feminizazioa murriztea, gizarte zerbitzuak egokituz eta Lautadako landa-eremuko emakumeak kuadrillako enpleguan sartzen lagunduz.
- 4.2. HELBURUA: Arabako Lautadako udalerrietan hirigintza eta garraio jasangarriak planifikatzeko irizpideak ezartzea, bere eskumenen esparruan; pertsonen autonomia eta kontziliazio erantzunkidea errazten dituztenak.

Garatzeko, ondoren adieraziko diren neurriak proposatu dira:



### III. PROGRAMA: ZAINTZEN BANAKETA ETA EKONOMIA FEMINISTA

#### 3.1. HELBURUA: Lautadatik bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen eredia nola lagundu aztertzeke eztabaida publikoa sustatzea.

##### • 3.1.1. Zaintzen, bizitzaren jasangarritasunaren eta ekofeminismoaren garrantziaren buruzko hausnarketa sustatzea.

- Kuadrillako topaketa bat antolatzea zaintzei eta bizitzaren jasangarritasunari buruz, Lautadako emakumei interesatzen zaizkien hizlariak ekartzeko aukera baloratu.
- Lautadan adinekoen zaintza beharren estaldura mailaren gaineko analisia egin, bideratzen diren zerbitzuen arabarako kalitatea eta asebetetze maila eta zainzaileen beharren asebetetze maila.
- Emakume migratzaileen, emakume arrazializatuen edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen taldeak eta talde feministak sustatzea, emakume hauek agerian jartzen dituzten eztabaidak, hitzaldiak, jardunaldiak zein ekitaldiak antolatuz, emakume migratzaileek egiten dituzten zaintzeko lanei buruzko argudioak sortaraztekoan: familiengan zaintzen banaketa egon beharrean, gero eta gehiago emakume hauek egiten ari dira.
- Kuadrillako jardura AFAko Zaintzaileak zainduz programarekin koordinatzea.
- Hartzaindegia eta garraioa eskaini emakumeek komunitate jardueretan parte hartu ahal izateko.
- Udaletako auzolaneri buruzko ordenantzetan artikulua bat sartzea; herritako auzolanen egiteko hartzaindegia eskeintzea beharrezkoa dela jarri, eta Arabako Lautadako kontzeju guztiei bidaltzea.

##### • 3.1.2. Maskulinitate eredu berrien garapena sustatzea.

- Maskulinitate hegemonikoaren ereduak lantzeko gutxienez bi tailer garatzea, zaintzen eredu soziala eta horien paperaz hitz egiteko.
- Lautadako Kuadrillako elkarte guztientzako ekintza positiboak egin, aita eta haurrentzako jarduerak sustatzen dituztenak edo gizonen zainzailearen rola laguntzen dutenak jardueraren diseinuan. Era berean, ekintza positibo hauek udalerrietan eta Kuadrillan edozein alorretan egiten diren jardueretan diseinatu.

#### 3.2. HELBURUA: Lautadako Kuadrillako ikastetxeetan hezkidetzak txertatzen jarraitzea, genero ikuspegia sartuz kultura, politika eta praktikan, eta emakumeen eta feminismoaren ekarpen soziala eta historikoa sartuz hezkuntza proiektuen edukien artean.

##### • 3.2.1. Lautadako udalerrietako ikastetxeetan hezkidetzak proiektuak sustatzea eta koordinatzea.

- Urtero Lautadako ikastetxeak aholkatzea, irakasleak, ikasleak eta ikasleen Guraso Elkarteak (IGEAK) inplikatzeko dituzten hezkidetzak proiektuak antolatzeko.
- IGEAak aholkatzeak euren proiektuak finantzatzeko dituzten erakundeei diruz laguntzeko eskatzeko.

##### • 3.2.2. Lautadako Kuadrillako hezkuntza ez formalean genero ikuspegia txertatzen jarraitzea.

- Denbora libreko begiraleentzako hezkidetzak formazio-ekintza prozesuak egitea eta Berdintasunerako klausulak txertatzea gazteei zuzendutako hezkuntza ez formaleko jardueretan Lautadako udalerrietan.

## IV. PROGRAMA: BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK BANATZEA BIZITZA JASANGARRIA IZATEKO

### 4.1. HELBURUA: Pobreziaren feminizazioa murriztea, gizarte zerbitzuak egokituz eta Lautadako landa emakumeak Kuadrillako enpleguan sartzen lagunduz.

- **4.1.1. Zaintzen banaketa eta pobreziaren feminizazioaren azterketa.**
  - AFAk egindako pobreziaren feminizazioari buruzko eta Kuadrillen arabera banatutako ikerketa Lautadako udaletako eta Kuadrillako langileen eta herritarren artean zabaltzeko prozesu bat egitea.
  - Hartutako neurrien jarraipena egitea.
- **4.1.2. Lautadako Landa Garapenerako Agentziaren eta Berdintasun Zerbitzuaren lana koordinatzea landa-eremuko emakumeak baliabide ekonomikoak eskuratzeko berdintasuna sustatzeko.**
  - Lautadako Landa Garapenerako Planaren Genero ikuspegia sartzeko ekintzen elkarrekiko jarraipena egin.

### 4.2. HELBURUA: Arabako Lautadako udalerrietan hirigintza eta garraio jasangarriak planifikatzeko irizpideak ezartzea, bere eskumenen esparruan; pertsonen autonomia eta kontziliazio erantzunkidea errazten dituztenak

- **4.2.1. Lautadako Kuadrillako udalen HAPOetan genero ikuspegia sartu.**
  - Genero Inpaktuaren Ebaluazioa egin HAPOren aldaketa edo hori egiten ari diren udalerrien hirigintza araudian, AFaren eta Emakunderen gomendioak jarraituz: Donemiliaga, Barrundia, Zalduondo, Iruaiz-Gauna, Elburgo-Burgelu.
  - Barne Erreforma Plan Berezia egingo duten udalerrietan, zurrrenik Alegria-Dulantzi, Agurain eta Asparrena, planteamendu prozesuek genero ikuspegia sartzen dutela bermatu, beharrezkoa izatekotan Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa Sailak horretarako eskaintzen duen dirulaguntza eskatuz.

### III. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

#### A.- ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa ohiko bat da, izena jarri gabe egunerokoan ikusten duguna. Maria Naredo Berdintasunerako Politiketean, indarkeria matxistan eta erreparazioan aditua den juristaren hitzetan “ez da kasualitatea eskubideen urraketa bati kalifikazio hori kentzea, egitura, gizarte eta harreman dimentsioa kenduz, “noizbehinkako indarkeria edo gizarte gaitza” izendapena jarriz, inplikaturako gizarte estamentuen erantzukizuna automatikoki alde batera uzten duena, sozietateak indarkeria matxistaren benetako izaera ulertzea oztopatuz”.<sup>3</sup> Emakumeen kontra burutzen da emakume izate hutsagatik, genero diskriminazioen eta boterearen ondorioz, egungo eredu androzentrikoan zein patriarkalean gizonek emakumeen gainean dutena, azkenak menpeko lekua dutela. Hori dela eta, eskubideak bermatzeko ikuspegitik, ardatz honen helburua Lautadako Kuadrillako ekintzak bideratzea da, emakumeek eta biziraun duten beste biktima batzuek, euren seme-alabak kasu, euren kontra egiten den indarkeriarik gabe bizi ahal izateko.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Europako Kontseiluaren emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioari buruzko Hitzarmenak, 2011ko maiatzaren 11koa (Istanbuleko Hitzarmena), emakumeen kontrako indarkeriatzat jotzen dute emakumeentzat izaera fisikoko, sexualeko, psikologiko edo ekonomikoko kalteak sor ditzaketen indarkeria ekintza oro, baita ekintza horiek egitearen mehatxuak, bortxaketak edo askatasuna mugatzea, bizitza publiko edo pribatua. Hala ere, Plan honen barruan ere indarkeria matxisten gainean hitz egin dugu, eta horiek dira kontrol, eraso, arbuio, inposaketa zuzena, estrukturala eta sinboliko mota eta ekintza oro, sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormatibitatea betetzen ez duten gorputz anitzen kontra zein hura gaingitu gabe bertan inplizituki dagoen botere harremanak jasaten dituen objektua direnen kontra, hau da, emakumeak. Bi kasuetan indarkeria matxistak haurtzarora adierazten dira eta bizitza osoan mantentzen dira. Indarkeria matxistek indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste forma batzuk ere barne hartzen dute: transfobia, lesbofobia eta homofobia.

Indarkeriari dagokionez, egun giza eskubideen ikuspegia aintzat hartzen ez duen lege basamortu bat daukagu: estatuko marko juridikoak eta EAEkoak ez zuten islatzen indarkeria matxistaren biktima eta biziraunentzako erreparazio eskubidea 2014. urtera arte. Urte horretan Espainiako Estatuak 2011ko Istanbuleko Hitzarmena berretsi zuen, barne arau lotesle bihurtuz, baina oraindik gauzatze bidean dago:

Giza eskubideen urraketaren aurreko erreparazio eskubideak, nazioarteko zuzenbidearen arabera, lau oinarriko alderdi ditu:

- Errehabilitazio edo errekonstruzio osoa: ahal den neurrian, biktimari pairaturako erasoaren aurreko egoerara itzularaztean datza, bere errekonstruzio fisikoa, psikikoa eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurriak barne. Istanbuleko Hitzarmenaren arabera, giza eskubideen erreparazio betebeharrak indarkeria matxistari aurre egin edo egiten dioten emakumeen errekonstruzio osoa edo errehabilitazioa dakar, epe ertainean zein luzean. Horrela, emakumeen idiosinkrasia eta aniztasuna aintzat hartuko da errekonstruzio oso hori lortzeko orduan.
- Indemnitazioa: ekonomikoki ebaluatu daitezkeen kalte-ordainengatikoko konpentsazio ekonomikoa, horien artean min fisiko eta buruko mina, min, sufrimendu eta angustia emozionala barne; aukerak galtzea, hezkuntza, enplegu eta prestazio sozialen aukerak barne; kalte materialak eta diru-sarreraren galera, lortu gabeko

<sup>3</sup> “Inmigración y violencia machista” jardunaldia, Donostia, 2012ko ekainaren 6a. Hizlaria María Naredo

irabaziak barne; duintasunari edo erreputazioari egindako kaltea; asistentzia juridikoa edo espezializatua dela eta izandako gastuak, mediku zerbitzu psikologikoak eta sozialak. Estatuak bermatu behar du biktimak pairatutako kalteari egokitutako kalte-ordaina jasotzea, eta aurreratu beharko luke ondoren zordunearan eragina izan dezakeelako ordaindutako kopurua (indarkeria ekintzen egile arduraduna). Juridikoki kalte-ordaina edo konpentsazio ekonomikoak erantzukizun zibila aitortzea dakar, eta horrek indarkeria matxisten tratamendu eta aintzat hartzearekin konpromiso handiagoa eskatzen du.

- Ez errepikatzeko bermea: Estatuak eraso errepikatuko ez dela bermatu behar du, eta bizirik atera direnek errepresalia edo mehatxuen aurrean babestuta daudela. Erreparazioarako eskubidearen alderdi honek banakako dimentsioa zein termino estrukturaletan ematen den indarkeria dakar, erakunde arteko biktimizazioa bezala.
- Biktimaren edo bizirik atera denaren asebetetzea. Bortxaketen etetea, gertakariak egiaztatzea, egia publikoki zabaltzea kalte gehiago sortuko ez badu eta biktimaren, lekukoaren eta beste pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen ez badu, desagertutakoak non dauden topatzea; kulturaren arabera hilobiratze berriak egiteko laguntza; biktimaren duintasuna eta erreputazioa berrezartzen duten aitorten ofizialak. Alderdi honek kontaketa duina eta pitzadurarik gabekoa egingo dela bermatzen du, bizirik atera diren emakumei duintasuna eskaintzen diena, euren bizipenak eta indarkeria honek gure gizartearen egitura sakonenetan dituen sustraiak aitortuz.

EAEko VII. Berdintasun Planaren lan ardatza da kontzeptualizazio hau, bizirik atera diren biktimak erdigunean jartzen dituen politika eraginkorrak ezarri nahi dituen, eskubideen titularrak diren heinean, eta indarkeriak euren bizitzetan dituen inpaktu ezberdinak. Marko honen barruan ulertzen da Lautadako planaren indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko lana. Dena den, aipatu beharra dago aipatu dugun basamortu legal hau aldatuko dela EAEn, 4/2005 Legearen zein etxeko indarkeriaren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretarako erakunde arteko II. Akordioaren garatzen ari den erreformari esker.

## B. IBILITAKO BIDEA ETA IBILI BEHARREKOA INDARKERIA MATXISTEN ALORREAN LAUTADAKO KUADRILLAN




### IBILITAKO BIDEA

- Araban indarkeria matxistaren egoeraren diagnostikoa: Arabako Lautada.
- Kuadrillan indarkeriari arreta emateko erakunde arteko batzordea.
- Indarkeria matxistari aurre egin edo egiten dioten emakumeen Arreta Koordinatzeko erakunde arteko Protokoloa. (Bigarren edizioa)
- II. Protokoloaren Jarraipen Batzorde Politikoa.
- Prebentzio eta sentsibilizazio jarduerak: Beldur Barik programan parte hartzea eta jaietan indarkeriaren prebentziorako lana, autodefentsa feminista, hitzaldi eta tailerrak.
- Zalduondoko sinadura kolektiboa "indarkeria matxistarik gabeko udalerrri" izendatzeko, herriko gazteek egindako indarkeria matxistaren aurkako jarduera baten ondorioz.



### IBILI BEHARREKOA

- Lautadako indarkeria matxistaren aurkako Plan Integral bat egitea, Giza Eskubideen ikuspegitik, arreta hobetzeko estrategiez gain koordinazio eta salaketa publikoa, planteamendu objektiboak eta prebentzioan, sentsibilizazioan, erreparazioan eta emakumeen memoria errekuaratzean aurrera egiteko estrategiak jasotzen dituen, Legearen etorkizuneko erreformak aintzat hartuz.
- Kuadrillako indarkeria matxistaren aurkako II. Protokoloa berrikustea, Erakunde arteko III. Erabakiaren aldaketak sartzeko.



Hauek dira horretarako proposatzen diren helburuak:

#### **V. PROGRAMA: INDARKERIA MATXISTAREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA**

- 5.1. HELBURUA: Desberdintasunen eta indarkeria matxistaren arteko lotura ikusarazten dituzten programa eta jardueretan parte hartzen duten pertsona kopurua handitzea.
- 5.2. HELBURUA: Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura ikusarazten duten gazte kopurua handitzea

#### **VI. PROGRAMA: KALTEAREN HAUTEMATEA, ARRETA KOORDINATUA ZEIN INTEGRALA, ETA KONPONTZEA**

- 6. HELBURUA: Indarkeria matxista eta horren adierazpenak sakonago ezagutzea, deribazioa hobetzeko, biziraunentzako arreta integrala zein koordinatua bermatzeko eta kaltearen erreparaziorako, ahalduntze ikuspegitik.

## V. PROGRAMA: INDARKERIA MATXISTAREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

### 5.1. HELBURUA: Desberdintasunen eta indarkeria matxistaren arteko lotura ikusarazten dituzten programa eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua areagotzea

- **5.1.1. A25 ospatzeko kanpainak egitea, elkarte mugimenduaren parte hartzearekin antolatuta.**
  - Urtero udalek ekintza edo jarduera bat antolatzea azaroaren 25a ospatzeko, Berdintasun Kontseiluarekin eta Kuadrillarekin koordinatuta.
- **5.1.2. Indarkeria matxista arbuizatzen duten ekintza publikoak egitea, horiek ematen direnean, eta eraso mota horiek publiko egitea, bizirik atera direnekiko eta biktimekiko errespetua bermatuz, ahotsa emanez egia eta bizitakoaren aitopren soziala zabaltzeko, eta berriz biktimizatzen ekidinez.**
  - Indarkeria matxistaren adierazpen publikoak existitzen direnean eta indarkeriari aurre egin edo egiten dioten emakumeen edo biktimen familien adostasun eta ikuskaritzarekin, arbuizatzeke ekintza publikoak antolatu.
- **5.1.3. Indarkeria sexistaren prebentziorako jarduerak antolatzea Lautadako udalerrietako jaietan.**
  - Udalerri bakoitzeko elkarte mugimenduarekin eta Jai Batzordeekin diseinatzea, jaien aurretik, indarkeria matxistaren prebentziorako neurriak eta jaietan Berdintasuna emateko eta indarkeriarik ez egotea bermatzeko.

### 5.2. HELBURUA: Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura ikusarazten duten gazteen kopurua areagotzea

- **5.2.1. Beldur Barik programan edo eskualdean indarkeria matxistak prebenitzeko estrategikotzat jotzen diren Emakunderen beste programa batzuetan parte hartzea, Kuadrillako partaidetza koordinatuz.**
  - Adostutako ekintzak antolatzea eta ebaluatzea.
  - Beldur Barik programa edo eskualdean indarkeria matxistak prebenitzeko estrategikotzat jotzen diren Emakunderen beste programa batzuk ezartzeko beharrezko ekintzak diseinatzea, Lautadako ikastetxeekin eta Gaztelekuarekin koordinatuta.

## VI. PROGRAMA: KALTEAREN HAUTEMATEA, ARRETA KOORDINATUA ZEIN INTEGRALA EMATEA ETA KONPONTZEA

**6. HELBURUA:** Indarkeria matxistaren eta horren adierazpen ezberdinen ezagutza handitzea, deribazioa hobetzeko, ahalduntze ikuspegia duen arreta integrala eta koordinatua bermatzeko bizirik atera direnentzat eta kaltearen erreparaziorako.

- **6.1. "Lautadako Giza Eskubideen eta erreparaziorako eskubidearen ikuspegitik Indarkeriaren aurkako I. Plana Integrala" egitea, 4/2005 Legearen eta Erakunde arteko III. Erabakiaren aldaketak sartuz.**
  - "Lautadako Giza Eskubideen eta erreparaziorako eskubidearen ikuspegitik indarkeriaren aurkako I. Plana" egiteko prozesua kontratatzea, 4/2005 Legearen aldaketak ekarritako neurriak sartzeko.
- **6.2. Indarkeria matxistaren aurkako II. Protokoloaren ezarpena aztertzea.**
  - Urtero Indarkeria matxistaren aurkako II. Protokoloaren erakunde arteko koordinazio mahaiaren bilerak antolatzea.
  - Kuadrillako indarkeria matxistaren aurkako II. Protokoloa aldatzea, Erakunde arteko III. Erabakiaren aldaketak sartzeko.
  - Lautadako Kuadrillako indarkeria matxistaren aurkako II. Protokoloaren erakunde arteko koordinazio Mahaia osatzen duten langileak formatzea.



## 8. LAUTADAKO KUADRILLAKO II. PLANAREN EBALUAZIOA

Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ardura duen organoa Kuadrillako Berdintasun Unitatea da. Ebaluazioa izaera plural eta malgua duen estrategia batetik burutuko da, Planaren inplementazioak irauten duen bitartean, une desberdinetan, ondorengoak konbinatuko dituen:

- Planaren gauzatzearen balorazio zehatza eta globala, kontuak emateko eta betetze mailaren balorazio orokorreko orientazioarekin.
- Berdintasunerako Politiken inpakturako klabe diren alderdi zehatzetan ardazturiko azterketak egitea, ikasketa eta hobekuntzari dagokionez erabilgarritasun handia dutenak.

Prozesuak estrategia ezberdinak konbinatuko ditu, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Politiken eremuan ebaluazioaren klabe diren gaien inguruko hausnarketa egiteko aukera emango dutenak.

### A. BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA

Betetzearen ebaluazioa bi prozesuen bidez egingo da:

- **Datuen jasotze kuantitatiboa:** Planean ezarritako adierazleetan oinarrituz egingo da. Dokumentu hau Excel formatuan ere egin da, neurri bakoitzari dagozkion urteko jardueren datuak eta txostenak sartu ahal izateko.
- **Datuen jasotze kualitatiboa:** Berdintasun Unitatearen edo Planaren inplementazioan parte hartu duten pertsonen ohar, apreziazioetan eta balorazioetan oinarrituta. Urtero, plan operatiboa eta memoria Batzorde Politikoari, Teknikoari eta Berdintasun Kontseiluari aurkeztuko zaizkie. Bilera bakoitzak ekarpenen balorazio eta jasotze fase bat izango du, Excelean eta betetze mailaren ebaluazioan ere sartuko dena.

Urtea amaitzean, Berdintasun Zerbitzuak informazio guztiaren elkarrekiko analisia egingo du, jardueren memoria hura egiteko emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun planifikazioarekin lotuta.

Berdintasunerako II. Plana inplementatzeko epea amaitzean, Berdintasun Zerbitzuak betetze mailaren, aurrekontuen gauzatze mailaren eta kronogramaren ebaluazioa egingo du.

### B. KOHERENTZIAREN EBALUAZIOA

Metodologia kualitatibo baten bidez egingo da eta Kuadrillako emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Politiken dimentsio kontzeptuala eta sustantiboa jorratuko du. Beraz, jarduerak egitetik haratago joango da horien eduki politikoak baloratzeko eta euren kalitatearen eta eraldatzeko potentzialari buruzko hausnarketa egiteko.

### C. PROZESUAREN EBALUAZIOA

Inplementazio prozesuan eta organizazio eta operazio zabalpenean sakontzean zentratua, ikuspegi plural batetik inplikazioa duten agenteen balorazioei emango die arreta batez ere, existitzen diren laguntza instrumentuekin eta hauek erabileraren hautematearekin duen asebetetzearekin identifikatuz. Ondorioz, ikasketan eta hobekuntzan oso zentratua dagoen ebaluazio mota bat da, erabakiak hartzeko garrantzitsuak diren alderdi kualitatiboak sartzeko aukera emango duena.

### D. INPAKTUAREN EBALUAZIOA.

Berdintasunerako Politiken efektuak aztertuko ditu, espero direnak eta espero ez direnak. Mota hauetako galderak erantzungo ditu: Nola aldatu da Berdintasunerako Politiken kolektibo hartzaileen egoera? Nola aldatu da gizartean orokorrean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoera? Horretarako, bigarren mailako iturriak bilduko eta aztertzean oinarritutako metodologia bat erabiliko da:

- Estatistika ofizialaren datuak.
- Udal iturrietako datuak, *mainstreaming* estrategia ezartzeko prozesutik ateratakoak.

Era berean, Lautadako herritarrekin egindako parte-hartze prozesu baten analisi kualitatibo batean oinarrituko da.

Betetze ebaluazioa urtero egingo da eta memorietan jasoko da.

Koherentzia, emaitzaren eta Inpaktuaren ebaluazioa Lautadako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen arteko II. Berdintasun Planaren indarraldia amaitzean egingo da.

# 9. NEURRIAK GAUZATZEA: EKINTZAK, ADIERAZLEAK, ARDURADUNAK ETA KRONOGRAMA

Ondoren, helburu bakoitzarentzat proposatutako neurriak ezartzeko gomendatutako ekintzak, neurriak betetzearen adierazleak eta burutzeko kronograma zehaztu dira.

## GOBERNU ONA

### 1. PROGRAMA: BULTZADA POLITIKOA

#### 1.1. HELBURUA: BERDINTASUNERAKO POLITIKEN JARRAIPENA PLANIFIKATZEA ETA EGITEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEA	URTEAK
<b>1.1.1 Urteko jarraipenerako tresnak mantentzea: bilerak Politikariek, teknikariek, elkarte ehunarekin eta gizarte eragileekin.</b>	Urtero planifikazio bilerak egitea Berdintasun Unitatearen eta Kuadrillako zortzi udalerrietako alkatetzen eta presidentearen; Batzorde Politikoaren, Batzorde Teknikoaren; zortzi udalerrri bakoitzeko elkarte nagusien eta Lautadako Berdintasun Kontseiluaren artean.	Berdintasun Unitatea- Batzorde Politikoa; Batzorde Teknikoa; Berdintasunerako Kontseilua.	Egindako bilera kopurua. Sexuaren eta profilaren arabera banatutako parte-hartzaile kopurua	2020,2021,2022, 2023
<b>1.1.2. Inplikaturako zerbitzu teknikoekin eta politikariek komunikazioa eta koordinazioa hobetzea, berdintasun-politiketan mainstreaminga (zeharkakotasuna) ezartzeko eta jarraipena</b>	Berdintasun-politiketan, mainstreaming-estrategian egindako aurrerapenak urtero koordinatzea inplikaturako zerbitzu teknikoekin, Berdintasun-zerbitzuak edo bere ekimenez proposatutako proposamen teknikoak haiek aplikatu ondoren, informazio hori berdintasun-zerbitzuari itzuliko diote, urteko aurrerapenen jarraipena hobetzeko.	Kuadrillako eta udaletako zerbitzu teknikoak. Berdintasunerako unitatea.	Egindako bileren kopurua, egindako idatzizko jakinarazpenen kopurua.	2020,2021,2022, 2023
<b>1.1.3 Urteko plan operatiboak egitea, indarraldia amaitzean plana betetzeko nahikoa zabalpen dutenak.</b>	Urteko Plan Operatibo bat egitea, Kuadrillan, Berdintasunerako Batzorde Politikoan eta Berdintasun Kontseiluan lortu diren akordioak jasoko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa; Batzorde Teknikoa; Berdintasunerako Kontseilua.	Egindako plan operatibo kopurua.	2020,2021,2022, 2023

	Kuadrilako Urteko Plan Operatiboaren berri ematea Arabako Lautadako Kuadrilako Batzarrari.	aurkeztea Lautadako Kuadrillako Batzarrean, Batzorde Politikoa, Berdintasunerako Unitatea	Bidalitako plan operatibo kopurua	2020,2021,2022, 2023
<b>1.1.4. Urteko jarraipen memoriak egitea, lortutako emaitza eta lorpenak ikusarazteko.</b>	Urteko Jarraipen Memoria egitea.	Berdintasun Unitatea.	Egindako memoria kopurua.	2020,2021,2022, 2023
	Urtero, Jarraipen-memoria aurkeztea udalei, Berdintasun Kontseiluari eta Arabako Lautadako Kuadrillako Batzarrari.	Berdintasun Unitatea. Lautadako Kuadrillako Batzarra. Berdintasun Kontseilua	Bidalitako memoria aurkezpen kopurua.	2020,2021,2022, 2023

## 1.2. HELBURUA: BERDINTASUNERAKO POLITIKAK GARATZEKO AURERKONTUAK HANDITZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>1.2.1. Urteko planifikazio operatiboa egiteko beharrezkoak diren aurrekontuak onartzea</b>	Urtero zortzi udalerrietako alkatetzekin egiten diren bileretan, urteko Plan Operatiboaren beharren eta Berdintasunerako Legearen aginduen arabera aurrekontua adostea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	Urteko aurrekontua udalerrri/Kuadrillaren arabera banatuta. Aurrekontuaren estaldura maila eskariarekin alderatuta.	2020, 2021, 2022, 2023
<b>1.2.2. Berdintasunerako Politikak finantzatzeko laguntza eta diru-laguntzak eskatzea.</b>	Urtero, diru-laguntzaen eskaria aurkeztea plan honen jarduerak finantzatzea ditzaketen erakundeei.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	Urtero aurkezten diren urteko diru-laguntza eskari kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
	Urtero, Lautadako elkarteei gogorarazi eta jakinarazi jasotzea ditzaketen Berdintasunaren inguruko diru-laguntzaen deialdiak.	Berdintasun Unitatea. Berdintasun Kontseilua	Egindako gogoarazpen ekintza kopurua eta deskribapena	2020, 2021, 2022, 2023

## 1.3. HELBURUA: BERDINTASUN ARAUDIA GARATZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>1.3.1 Kuadrillako udalerrietan ordenantzak egiten jarraitzea.</b>	Berdintasunerako ordenantza bat gutxienez onartzea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa, Udaletako berdintasun zinegotziak eta alkateak	Egindako ordenantza kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023

## 2. PROGRAMA: EZAGUTZAREN KUDEAKETA

### 2.1. HELBURUA: POLITIKARIEI ETA TEKNIKARIEI BERDINTASUNARI BURUZKO FORMAZIOA ESKAINTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>2.1.1 Kuadrillako politikarien eta teknikarien formazio beharren planifikazioa egitea AFArekin batera.</b>	Urteko Planak barne hartuko du, gutxienez, Batzorde Politikoaren edota Batzorde Teknikoaren edota gainerako teknikarien prestakuntza bat, edota udaletako eta koadriletako politikarien urteko prestakuntza bat.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa.	Planifikatutako formazio ekintza kopurua. Formazioaren edukia eta sexuaren eta profilaren arabera banatutako gonbidatuak	2020, 2021, 2022, 2023
	Urtero, zehaztutako ikastaroak antolatzea, horiek ezartzea Arabako Foru Aldundiarekin eta Plana ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak eman ditzaketen beste erakundeekin –Emakunderen Nahiko, Gizonduz eta Jabetuz programak, eta Virginia Woolf Basqueskolako formazio programa, edota Arabako Foru Aldundiaren Laia Eskola programarekin.	Berdintasun Unitatea.	Antolatutako formazio ekintza kopurua. Formazioaren edukia eta sexuaren eta profilaren arabera banatutako gonbidatuak	2020, 2021, 2022, 2023

## 2.2. HELBURUA: BERDINTASUNA BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOAN TXERTATZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>2.2.1 Hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista Lautadako udalen eta Kuadrillaren erakunde komunikazioetan.</b>	Kuadrillako teknikariei eta komunikazio arduradunei zuzentaraua bidaltzea, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiteko eta zalantzarik izatekotan Berdintasun Unitatearekin kontsultatzeko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Teknikoa. Kuadrillako komunikazio arduraduna.	Zuzentaraua bidaltzea	2020
	Politikari eta teknikariekin aholkularitza lana egitea eskatzen dutenean.	Berdintasun Unitatea.	Egindako aholkularitza kopurua eta honen edukiak.	2020, 2021, 2022, 2023
	Komunikazio publiko oro berrikustea: diskurtso edo komunikatuak, udalerrietako eta Kuadrillako web orrialdeetako argitalpenak, EHAOko argitalpenak.	Berdintasun Unitatea. Udaletako eta Kuadrillako langile guztiak	Komunikazio motaren arabera egindako komunikazio kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
<b>2.2.2. Urtean Berdintasunaren inguruan egiten diren ekintzen berri ematea.</b>	Plan hau ezartzearekin lotuta antolatzen diren ekintzak zabaltzea udaletako eta Kuadrillako web orrietan, wasapen, emailen eta sare sozialen bidez.	Berdintasun Unitatea. Lautadan Erakunde Komunikazioaren ardura duen Batzorde Politikoa eta Langileak.	Hedapen bidetik egindako hedapen kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
	Lautadako komunikabideetan Berdintasunari buruzko berriak argitaratzea.	Berdintasun Unitatea. Lautadan Erakunde Komunikazioaren ardura duten Langileak.	Argitaratutako berri kopurua, komunikabidearen eta eduki motaren arabera.	2020, 2021, 2022, 2023

### 3. PROGRAMA: GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN

#### 3.1. HELBURUA: SEXUEN ARABERA BEREIZITAKO DATUAK BILTzea, USTIATZEA ETA ERABILTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>3.1.1 Sexuen arabera bereizitako datuak jasotzeko tresnen garapenean laguntzea eta aholkuak ematea Lautadako udaletako eta Kuadrillako teknikariei.</b>	Lautadako udaletako eta Kuadrillako teknikariek bilera bat egitea zer datu jasotzen dituzten berrikusteko eta nola banatu ikusteko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa. Idazkaritzak. Datuak jasotzean eta horien analisisan inplikaturako gainontzeko langileak.	Egindako bilera kopurua. Datuak sexuaren arabera banatzen dituzten pertsona kopurua. Datuak zabaltzen dituzten pertsona kopurua. Genero arrakalak aztertzen dituzten pertsonen kopurua.	2020
	Jasotzen diren datuen zerrendarekin eta datuak sexuen arabera banatzeko eta erabiltzeko txosten bat egitea eta udaletako Alkatetzetara eta Lautadako Kuadrillako Presidenteari bidaltzea, neurriak jasoz zuzentarau bat bidal dezaten.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	Txostena egitea eta bidaltzea, gutxienez eduki honekin: Datuak sexuaren arabera banatzen dituen pertsona kopurua. Datuak zabaltzen dituen pertsona kopurua. Genero arrakalak aztertzen dituzten pertsonen kopurua. Datuak jasotzeko eta zabaltzeko oztopoak eta gomendioak.	2020
<b>3.1.2. Lau urtean behin, Berdintasun Planarekin bat, sexuen arabera banatutako datuen ustiatzea eta erabiltzea Kuadrillan Berdintasunerako politikak ezartzeko graduaren garapena aztertzeko.</b>	Banatutako datuen memoria Berdintasun Planaren amaierako ebaluazioan sartzea eta Kuadrillan datuen banaketa betetzen den ebaluatzea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Batzorde Teknikoa. Idazkaritzak. Datuak jasotzean eta horien analisisan inplikaturako gainontzeko langileak.	Genero arrakala kopurua: Lautadako Kuadrillarenak berezkoak diren datuetatik aterata.	2023



### 3.2. HELBURUA: GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO ESPERIENTZIA PILOTUAK EGITEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>3.2.1. Teknikariak tresnaren erabileran formatzea proiektu pilotuak garatzen doazen heinean.</b>	Lautadako udaletako eta Kuadrillako teknikariak formatzea Genero Inpaktuko Ebaluazioak egiteko metodologian formazio-ekintza esperientzien bidez, proba pilotu baten bidez.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Teknikoa. Idazkaritzak. Datuak jasotzean eta horien analisisan inplikaturako gainontzeko langileak.	Egindako Formazio kopurua. Sexuaren arabera banaturako parte-hartzaile kopurua	2021

### 3.3. HELBURUA: BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK KONTRATUETAN ZEIN DIRULAGUNTZETAN TXERTATzea

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>3.3.1. Berdintasun klausulak barne hartzen dituzten Lautadako udalen eta Kuadrillaren dirulaguntzen eta kontratazio deialdien kopurua areagotzea.</b>	Udaletako eta Kuadrillako idazkaritzekin genero ikuspegiarekin lotutako formazio ekintza egitea, formazioa amaitzean klausulak dauden dirulaguntza guztietan egoteko eta etorkizunean ezartzen jarraitzeko gida bat izateko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa eta Idazkaritzak	Egindako Formazio kopurua. Sexuaren arabera banaturako parte-hartzaile kopurua	2020
	Idazkaritzekin genero ikuspegiarekin lotutako formazioa egitea, formazioa amaitzean duela gutxiko edo berehalako adibideekin lan egiteko eta etorkizunean ezartzen jarraitzeko gida bat izateko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa eta Idazkaritzak	Egindako Formazio kopurua. Sexuaren arabera banaturako parte-hartzaile kopurua	2020

### 3.4. HELBURUA. GENERO IKUSPEGIA SEKTORE PLANETAN ZEIN ZEHARKAKO PLANETAN TXERTATzea

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>3.4.1. Lautadako udaletan eta Kuadrillan ezartzen diren sektore planen eta zeharkako planen diseinuan teknikari eta politikariak aholkatzea.</b>	Batzorde Teknikoaren bileretan, sail bakoitzaren oinarri diren planak zeintzuk diren lehentasuna duen gai bezala landu. Udal eta Kuadrillako Sektore planak aldatuko direnean, Berdintasun Unitatearekin kolaboratzea plan horien diseinuan genero ikuspegia zeharka txertatzearen.	Batzorde Teknikoa. Berdintasun Unitatea.	Genero ikuspegia duten sektore plan kopurua	2020, 2021, 2022, 2023

#### 4.1. HELBURUA: ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KOORDINAZIO PROZESUETAN PARTE HARTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>4.1.1. Berdinbidean programaren urteko bileretan parte hartzea.</b>	AFAk Berdinbidean Zerbitzutik deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	Joandako bilera kopurua. Unitatearen dedikazio ordu kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
<b>4.1.2. LAIAeskola programaren urteko bileretan parte hartzea.</b>	AFAk LAIAeskola Idazkaritza Teknikotik deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa eta	Joandako bilera kopurua. Unitatearen dedikazio ordu kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
<b>4.1.3. AFAk planteatutako Kuadrillak koordinatzeko prozesuetan parte hartzea.</b>	AFAk Kuadrillako Berdintasunerako Politikak koordinatzeko deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa eta	Joandako bilera kopurua. Unitatearen dedikazio ordu kopurua	2020, 2021, 2022, 2023

#### 4. PROGRAMA: KOORDINAZIO ETA KOLABORAZIOA

#### 4.2. HELBURUA: EMAKUNDEK ETA EUDELEK ANTOLATUTAKO KOORDINAZIO ETA KOLABORAZIO PROZESUETAN PARTE HARTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>4.2.1. Berdinsarea programaren urteko bileretan parte hartzea.</b>	AFAk Berdinsarea Zerbitzutik deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa eta	Joandako bilera kopurua. Unitatearen dedikazio ordu kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
<b>4.2.2. Beldur Barik programaren urteko bileretan parte hartzea.</b>	Beldur Barik programak deitutako bileretara joatea eta bilera horretan hartutako erabakien ondoriozko koordinazio lanak egitea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa eta	Joandako bilera kopurua. Unitatearen dedikazio ordu kopurua	2020, 2021, 2022, 2023

## I. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

### I. PROGRAMA: BANAKAKO AHALDUNTZEA SUSTATZEA: AUTONOMIA, AUTOESTIMUA ETA AUTOZAINZEA

#### 1.1. HELBURUA: LAUTADAKO HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA BERDINTASUNAK EUREN KOMUNITATEAN EGINDAKO EKARPENAREN GAINEAN, BERDINTASUNA JUSTIZIA SOZIALAREKIN LOTZEN DUTEN ZEIN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA ARAZO LARRITZAT JOTZEN DUTEN PERTSONEN KOPURUA AREAGOTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>1.1.1. Urtero emakumeen elkarte mugimendua eta Mugimendu Feminista laguntzea Lautadako Kuadrillan eta hura osatzen duten udalerri bakoitzean LAIAeskola Arabako Ahalduntze Eskolako ekintzak planifikatzeko.</b>	Berdintasun Kontseiluarekin eta Lautadako udalerrietako emakumeen elkartearekin eta Mugimendu Feministarekin bilerak egiteak emakumeen interesak zehazteko foro bakoitzak beharrezko duen maiztasunean ahalduntzearen inguruan. Adostutako ekintzak antolatzea eta ebaluatzea.	Lautadako Berdintasun Kontseilua	Egindako bilera kopurua. Sexuaren arabera banatutako parte-hartzaile kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
<b>1.1.2. Data garrantzitsuak Berdintasunaren inguruan egindako aurrerapenak eta dauden erronkak ikusarazten dituzten sentsibilizazio eta formazio jarduerekin ospatzea: M8 eta M17</b>	Urteko kanpainak Lautadako Berdintasun Kontseiluak zehaztutako interesen arabera antolatzea, beste erakundeetatik datozen baliabideak aprobetxatzeko beharra aintzat hartuz –AFA, Emakunde– eta indarrak batzeak estrategikoki duen garrantzia.	Lautadako Berdintasun Kontseilua	Sexuaren arabera banatutako kanpaina bakoitzeko parte-hartzaile kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
<b>1.1.3. Urtero Berdintasunerako Kuadrillako Topaketa bat antolatzea.</b>	Eskualdeko Topaketa Berdintasun Kontseiluarekin, udalerrietako alkateekin edota haien eskuordetutako zinegotziekin antolatzea eta ebaluatzea .	Lautadako Berdintasun Kontseilua. Batzorde politikoa	Sexuaren arabera banatutako parte-hartzaile kopurua. Inplikaturako elkarte kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
<b>1.1.4. Lautadako ingurumen, kultura, kirol eta euskara mugimenduko emakumeak Berdintasunerako jardueretan inplikatzea.</b>	Kultura, Euskara eta Ingurumen zerbitzuekin koordinatzea harremana duten elkarten artean Berdintasunerako jarduerak zabaltzeko.	Batzorde Teknikoa. Berdintasun Unitatea.	Berdintasunarekin loturarik ez duten eremuetako elkarte kopurua, Berdintasunaren gaineko jarduera edo ekimenetan parte hartzen dutenak.	2020, 2021, 2022, 2023

**1.2. HELBURUA: KIROLEAN ZEIN KULTURAN DAUDEN GENERO ARRAKALAK MURRIZTEA, EMAKUMEEN ETA NESKEN PARTE HARTZEA HANDITUZ ETA GENERO IKUSPEGIA LAUTADAKO KUADRILLAKO ELKARTEETAN ZEIN ERAKUNDEEN ESKAINTZAN TXERTATUZ**

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>1.2.1. Kirol politikak genero ikuspegitik garatzea.</b>	Lautadako emakumeei eta batez ere, kirol elkarteetan parte hartzen dutenei, kirolaren eremuan dituzten beharrei buruz galdetzea, genero ikuspegia barne hartzen duten Kuadrillako ekintzak sustatzeko.	Lautadako Kuadrillako eta Udaletako Kirol Zerbitzua.	Parte-hartze teknikari motaren arabera kontsultatutako emakume kopurua.	2022
<b>1.2.2. Kultura politikak genero ikuspegitik garatzea.</b>	Jaien eta ekitaldien programak genero-ikuspegiarekin gauzatzeko gida bat egitea.	Lautadako Kuadrillako eta Udaletako Kultura Zerbitzuak. Kuadrillako Batzarra. Udal jaietako batzordeak.	Genero ikuspegitik aztertutako jai kopurua. Sexuaren arabera banatutako parte-hartzaile kopurua. Neurri motaren arabera hartutako neurri kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
	Kultura teknikariekin lan egitea kultura eremuko urteko ekimena edo ekimenak zehazteko, udalerrri bakoitzean garrantzitsuenak direnak, eta genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaintzea.	Lautadako Kuadrillako eta Udaletako Kultura Zerbitzuak.	Genero ikuspegia duten kultura ekimen kopurua. Jarduerak Berdintasunari egindako ekarpenen deskribapena.	2020, 2021, 2022, 2023

### 1.3. DISKRIMINAZIO ANITZAK IDENTIFIKATZEA ETA LAN EGITEA, BATEZ ERE LGTBI KOLEKTIBOAREN BEHARREI DAGOKIENEZ

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>1.3.1. LGTBI kolektiboarekin, dibertsitate funtzionala duten pertonekin, adinekoekin eta gazteekin lan egitea, Sexu-orientazioengatik eta arauz kanpoko genero-identitateengatik, ezaugarri fisikoengatik eta adinagatik, diskriminazio anitzen ondorioak ezagutzeko zabalteko eta murrizteko.</b>	Lautadan normatiboak ez diren sexu orientazioak dituzten pertsonen diskriminazio eta beharren gaineko diagnostikoa egitea eta hedatzea.	Lautadako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarteak. Berdintasun Kontseilua	Diagnostikoko parte-hartzaile kopurua. Proposatutako eta onartutako neurri kopurua.	2020
	Askotariko diskriminazioaren ondorioak aztertzeke eta zabalteko interesa duten elkarteekin eta herritarrekin lan egitea: arauz kanpoko sexu-orientazioa duten pertonekin, dibertsitate funtzionala duten pertonekin, adineko eta gazteekin.	Lautadako mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak. Berdintasun Kontseilua	Elkarrekiko ekimenak egiteko izandako bilera kopurua. Egindako jarduera kopurua. Sexuaren arabera banatutako parte-hartzaile kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023

#### 1.4. HELBURUA: EMAKUME MIGRATZAILEEN EDOTA ARRAZIZATUEN KOLEKTIBOAREN BEHAR NAGUSIAK IDENTIFIKATZEA ETA LANTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>1.4.1. Emakume migratzaileen edota arrazizatuen kolektiboarekin lan egitea, eta genero, jatorri, etnia/arraza, baliabide ekonomiko, hizkuntza eta abarren araberako diskriminazio anizkoitzaren ondorioak zabaltzea eta murriztea.</b>	Emakume migratzaile eta/edo arrazizatuen diskriminazio anizkoitzak dituen ondorioak aztertzeke eta murrizteko interesa duten elkarteekin eta herritarrekin lan egitea, haien arteko eta bertako emakumeekin harremanak sustatuz.	Lautadako mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak. Berdintasun Kontseilua	Elkarrekiko ekimenak egiteko izandako bilera kopurua. Egindako jarduera kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
	Helburu horren betearazpena beste plan sektorial batzuekin koordinatzea, Plan honen helburuarekin bateragarriak izan daitezkeen Plan sektorialak dituzten udaletan.	Lautadako zerbitzu teknikoak, Berdintasun Unitatea	Koordinatzeko bileraren kopurua. Amankomuneneko jarduerak	2020,2021, 2022, 2023

## II. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOA SUSTATZEA: SOZIALA ETA POLITIKOA

### 2.1. HELBURUA: LAUTADAKO MUGIMENDU FEMINISTA ETA EMAKUMEEN ELKARTEAK INDARTZEA. HORRETARAKO, FEMINISMOA EZAGUTZEN DUTEN PERTSONA KOPURUA HANDITZEA, EUREN BURUA FEMINISTAZAT JOTZEN DUTEN PERTSONEN KOPURUA AREAGOTZEA ETA BERDINTASUNAREN ALDE LAN EGITEN DUTEN ELKARTEETAN ZEIN JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTENEN KOPURUA AREAGOTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>2.1.1. Mugimendu feminista eta emakume elkarteak sustatzea Lautadako emakumeen arteko ahizpatasuna sustatzeko.</b>	LAI Aeskolaren barruan, <i>coaching</i> , autokudeaketan aholkularitza, praktika onen trukaketa jarduerak egiteko erreserbatzea planifikazioaren parte bat, mugimendu feministarentzat eta emakumeen elkarteentzat, elkarte mugimenduaren formazioa sustatzeko eta autonomiarako tresnak emateko.	Lautadako mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak. Berdintasun Kontseilua.	Beharrak eta formazio lehentasunak adosteko izandako bilera kopurua. Egindako jarduera kopurua. Sexuaren arabera banatutako parte-hartzaile eta elkarte kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
	Talde feministak eta emakume elkarten taldeak laguntzea herritarrak erakartzeko jai eta ospakizunen antolaketan, ezagutarazteko eta euren jardueretan parte hartzeko proposatzen direnean, eta laguntzeko.	Lautadako mugimendu feminista. Lautadako emakumeen elkarteak. Berdintasun Kontseilua.	Egindako jarduera kopurua. Jardueren deskribapena. Sexuaren arabera banatutako parte-hartzaile kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023

**2.2. HELBURUA: LAUTADAKO EMAKUMEEN ERABAKIAK HARTZEKO LANPOSTUETAKO ERAGINA HANDITZERA ZUZENDUTAKO LAGUNTZA ETA TREBAKUNTZARAKO PROGRAMAK AREAGOTZEA**

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>2.2.1. Virginia Woolf Basqueskolan parte hartzen jarraitzea, Lautadako Kuadrillako emakume politikoak laguntzeko.</b>	Virginia Woolf Basqueskolako idazkaritza teknikoarekin biltzea eta bilera horietan hartutako erabakietan oinarritutako lanak egitea.	Lautadako eta bere udalerrietako emakume politikariak.	Joandako bilera kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
	Virginia Wolf Basqueskolari Arabako Lautadako Kuadrillako emakume politikarien beharrak jakinaraztea, programa horietan sartzeko eta parte hartzeko.	Lautadako eta bere udalerrietako emakume politikariak.	Lautadako eta bere udalerrietako bileretara joaten diren emakume politikariak.	2020, 2021, 2022, 2023
<b>2.2.2. Arabako Lautadako kontzejuetan parte hartzen duten emakumeentzako prestakuntza-programak edo topaketak mistoak bultzatzea.</b>	Gutxienez, bi topaketa egitea kontzejuetan: lehena, emakumeei zuzendua, eta bigarrena, mistoa: bata, hauteskunderen aurrekoa, kontzejuetako emakume guztiei zuzendua haien parte-hartzea bultzatzeko; eta bestea mistoa, kontzejuak eratu ondoren.	Berdintasun Unitatea, Arabako Kontzejuen Elkarteak (AKE), Arabako Foru Aldundia.	Egindako formakuntzaren kopurua. Formakuntzaren pertsonen kopurua, sexu arabeko bereiztasuna eginez.	2020, 2022,



## II. ARDATZA: BALIABIDEAK ETA ZAINZAK BANATzea BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ERDIGUNEAN JARRIZ

### III. PROGRAMA: ZAINZEN BANAKETA ETA EKONOMIA FEMINISTA

#### 3.1. HELBURUA: LAUTADATIK BIZITZAREN JASANGARRITASUNEAN OINARRITUTAKO GARAPEN EREDUA NOLA LAGUNDU AZTERTZEKO EZTABAIDA PUBLIKOA SUSTATzea

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>3.1.1. Zaintzen, bizitzaren jasangarritasunaren eta ekofeminismoaren garrantziari buruzko hausnarketa sustatzea.</b>	Kuadrillako topaketa bat antolatzea zaintzei eta bizitzaren jasangarritasunari buruz, Lautadako emakumei interesatzen zaizkien hizlariak ekartzeko aukera baloratu.	Berdintasun Unitatea. Ingurumen Zerbitzua Batzorde Politikoa.	Topaketako parte-hartzaile kopurua. Jasotako proposamen kopurua.	2020
	Lautadan adinekoen zaintza beharren estaldura mailaren gaineko analisia egitea, bideratzen diren zerbitzuen araberako kalitatea eta asebetetze maila eta zaintzaileen beharren asebetetze maila.	Zerbitzu Sozialen Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	lkerketako parte-hartzaile kopurua. Proposatutako neurri kopurua. Batzorde Politikoak onartutako neurri kopurua	2021
	Emakume migratzaileen, emakume arrazializatuen edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen taldeak eta talde feministak sustatzea, emakume hauek agerian jartzen dituzten eztabaidak, hitzaldiak, jardunaldiak zein ekitaldiak antolatuz, emakume migratzaileek egiten dituzten zaintzeko lanei buruzko argudioak sortarazteko: familiengan zaintzen banaketa egon beharrean, gero eta gehiago emakume hauek egiten ari dira.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	Bileren eta ekitaldien kopurua Bertaratutako pertsonen kopurua, sexuaren arabera. Egindako txostenak.	2021
	Kuadrillako jarduera AFAko <i>Zaintzaileak zainduz</i> programarekin koordinatzea.	Berdintasun Unitatea. Gizarte Zerbitzuak. Batzorde Politikoa.	Egindako bileren kopurua. Koordinatutako ekintza kopurua. Eraitzen deskribapena.	2020, 2021, 2022, 2023
	Hurtzaindegia eta garraioa eskaini emakumeek komunitate jardueretan parte hartu ahal izateko	Berdintasun Unitatea, Batzorde Politikoa	Hurtzaindegia edota garraioa eskaini diren jardueren kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
	Udaletako auzolanei buruzko ordenantzetan artikulua bat sartzea; herritako auzolanen egiteko hurtzaindegia eskaintzea beharrezkoa dela jarriz, eta Arabako Lautadako kontzeju guztiei bidaltzea.	Udalerriko alkatetza edota berdintasun zinegotziak. Lautadako Berdintasun Unitatea	Egindako ordenantzetan artikuluen kopurua Auzolanei buruzko ordenantza aldatu duten udalerrien kopurua	2021, 2022, 2023

<b>3.1.2. Maskulinitate eredu berrien garapena sustatzea</b>	Maskulinitate hegemonikoaren ereduak lantzeko gutxienez bi tailer garatzea, zaintzen eredu soziala eta horien paperaz hitz egiteko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Teknikoa. Batzorde Politikoa	Antolatutako tailer kopurua. Gizon parte-hartzaile kopurua. Tailerretan jorratutako gaiak.	2020, 2022,
	Lautadako Kuadrillako elkarte guztientzako ekintza positiboak egitea, aitentzako eta haurrentzako jarduerak sustatzen dituztenak edo gizonen zaintzailearen rola laguntzen dutenak jardueraren diseinuan. Era berean, ekintza positibo hauek udalerrietan eta Kuadrillan edozein alorretan egiten diren jardueretan diseinatzea	Berdintasun Unitatea. Batzorde Teknikoa. Batzorde Politikoa	Lautadan urtean egindako ekintza positibo kopurua. Erantzunkidetasuna sustatzen den jardueretan parte hartzen duen gizon kopurura	2020, 2021, 2022, 2023

### 3.2. HELBURUA: LAUTADAKO KUADRILLAKO IKASTETXEETAN HEZKIDETZA BULTZATZEN JARRAITZEA, KULTURA POLITIKOAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATUZ

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>3.2.1. Lautadako udalerrietako ikastetxeetan hezkidetzaren proiektuak sustatzea eta koordinatzea</b>	Urtero Lautadako ikastetxeak aholkatzea irakasleak, ikasleak eta ikasleen Guraso Elkartek (IGEak) barne hartzen dituzten hezkidetzaren proiektuak antolatzeko.	Berdintasun Unitatea Batzorde Politikoa Ikastetxeak	Zentro eta Berritzeguneekin egindako bilera kopurua. Urte eta zentro bakoitzean antolatutako ekintza kopurua. Urte eta zentro bakoitzeko parte-hartzaile kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
	IGEak aholkatzea euren proiektuak finantzatzen dituzten erakundeei diruz laguntzeko eskatzeko.	Berdintasun Unitatea Batzorde Politikoa Ikastetxeak	Lautadako IGEen dirulaguntza eskari kopurua. Emandako eskarien zenbatekoa. Dirulaguntza zein ekintzetara bideratuko den	2020, 2021, 2022, 2023
<b>3.2.2. Lautadako Kuadrillako hezkuntza ez formalean genero ikuspegia txertatzen jarraitzea</b>	Denbora libreko begiraleentzako hezkidetzaren formazio-ekintza prozesuak egitea eta Berdintasunerako klausulak txertatzea gazteei zuzendutako hezkuntza ez formaleko jardueretan Lautadako udalerrietan.	Berdintasun Unitatea Batzorde Politikoa	Egindako hezkidetzaren ekintza kopurua. Sexuaren arabera bereizitako begirale parte-hartzaile kopurua. Jorrotutako gaiak. Sartutako klausulak. Klausulen betetze maila.	2021, 2023

## IV. PROGRAMA: BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK BANATZEA BIZITZA JASANGARRIA IZATEKO

### 4.1. HELBURUA: POBREZIAREN FEMINIZAZIOA MURRIZTEA, GIZARTE ZERBITZUAK EGOKITUZ ETA LAUTADAKO LANDA-EREMUKO EMAKUMEAK KUADRILLAKO ENPLEGUAN SARTZEN SUSTATUZ

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>4.1.1. Zaintzen banaketa eta pobreziaaren feminizazioaren azterketa.</b>	Hartutako neurrien jarraipena egitea	Berdintasun Unitatea. Gizarte Zerbitzuak. Batzorde Politikoa.	Proposatutako eta ezarritako neurri kopurua. Sexuaren eta profilaren arabera banatutako onuradun kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
	AFAk egindako pobreziaaren feminizazioari buruzko eta Kuadrillen arabera banatutako ikerketa Lautadako udaletako eta Kuadrillako langileen eta herritarren artean zabaltzeko prozesu bat egitea	Berdintasun Unitatea Batzorde Politikoa Batzorde Teknikoa	Ikerketa zabaltzeko topaketa kopurua. Sexuaren arabera banatutako parte-hartzaile kopurua.	2020
<b>4.1.2. Lautadako Landa Garapenerako Elkartearen eta Berdintasun Zerbitzuaren lana koordinatzea landa-eremuko emakumeak baliabide ekonomikoak eskuratzeko Berdintasuna sustatzekotan.</b>	Lautadako Landa Garapenerako Planaren Genero ikuspegia sartzeko ekintzen elkarrekiko jarraipena egitea	Berdintasun Unitatea. LGE-Batzorde Politikoa.	LGEren Planaren genero ikuspegia sartzeko ezarritako ekintza kopurua. Onuradun kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
	Landa-eremuko emakumeentzako Diagnostikoa eta Plana egitea	Berdintasun Unitatea LGE-Batzorde Politikoa.	Egindako dokumentua. Parte hartzen duten landa emakume kopurua. Emakumeen eta beste eragile sozialen ekarpenak jasotzeko topaketa kopurua.	2022

#### 4.2. HELBURUA: ARABAKO LAUTADAKO UDALERRIETAN HIRIGINTZA ETA GARRAIO JASANGARRIAK PLANIFIKATZEKO IRIZPIDEAK EZARTZEA: PERTSONEN AUTONOMIA ETA KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA ERRAZTEN DITUZTENAK

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>4.2.1. Lautadako Kuadrillako udalen HAPOetan genero ikuspegia txertatzea</b>	Genero Inpaktuaren Ebaluzioa egitea HAPOaren aldaketa edo hori egiten ari diren udalerrien hirigintza araudian, AFaren eta Emakunderen gomendioak jarraituz: Donemiliaga, Barrundia, Zalduondo, Iruraiz-Gauna, Burgelu.	Hirigintza Zerbitzua Berdintasun Unitatearekin.	Genero ikuspegia duten HAPO kopurua. Prozesu parte-hartzaileetan egindako emakumeen proposamen kopurua. HAPOetan sartutako proposamen kopurua	2020, 2021, 2022, 2023
	Barne Erreforma Plan Berezia egingo duten udalerrietan, ziurrenik Alegría-Dulantzin, Agurainen eta Asparrenan, planteamendu prozesuek genero ikuspegia sartzen dutela bermatzea, beharrezkoa izatekotan Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa Sailak horretarako eskaintzen duen diru-laguntza eskatuz.	Hirigintza Zerbitzua Berdintasun Unitatearekin.	Genero ikuspegia duten BEPB kopurua. Prozesu parte-hartzaileetan egindako emakumeen proposamen kopurua. BEPBetan sartutako proposamen kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023

### III. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

#### 5.1. HELBURUA: DESBERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTEN ARTEKO LOTURA AGERIAN JARTZEN DUTEN PROGRAMETAN ZEIN JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KOPURUA AREAGOTZEA

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>5.1.1. A25 ospatzeko kanpainak egitea, elkarte mugimenduaren parte hartzearekin antolatuta.</b>	Urtero udalek ekintza edo jarduera bat antolatzea azaroaren 25a ospatzeko, Berdintasun Kontseiluarekin eta Kuadrillarekin koordinatuta.	Berdintasun Unitatea Berdintasun Kontseilua Udal alkatetza edota berdintasun zinegotziak.	Antolatutako jarduera kopurua. Sexuaren arabera banatutako jarduera bakoitzeko parte-hartzaile kopurua. Jardueren edukia	2020, 2021, 2022, 2023
<b>5.1.2. Indarkeria matxista arbuizatzen duten ekintza publikoak egitea, horiek ematen direnean, eta eraso mota horiek publiko egitea, bizirik atera direnekiko eta biktimekiko errespetua bermatuz, ahotsa emanez egia eta bizitakoaren aitorpen soziala zabaltzeko, eta berriz biktimizatzen ekidinez.</b>	Indarkeria matxistaren adierazpen publikoak existitzen direnean indarkeria matxistari aurre egin edo egiten dioten emakumeen edo biktimen familien adostasun eta ikuskaritzarekin, arbuizatzeke ekintza publikoak antolatzea.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Berdintasun Kontseilua	Antolatutako gaitzespen ekintza kopurua. Sexuaren arabera banatutako jarduera bakoitzeko parte-hartzaile kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
<b>5.1.3. Indarkeria matxisten prebentziorako jarduerak egitea Lautadako udalerrietako jaietan.</b>	Udalerrri bakoitzeko elkarte mugimenduarekin eta Jai Batzordeekin diseinatzea, jaien aurretik, indarkeria matxistaren prebentziorako neurriak eta jaietan Berdintasuna emateko eta indarkeriarik ez egotea bermatzeko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa. Berdintasun Kontseilua	Urtero indarkeriaren prebentzio eta gaitzespen ekintzak egiten diren jai kopurua. Egiten den jarduera kopurua eta horren deskribapena. Sexuaren arabera banatutako onuradun kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023

## V. PROGRAMA: INDARKERIA MATXISTAREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

### 5.2. HELBURUA: BERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTEN ARTEKO LOTURA AGERIAN JARTZEN DUTEN GAZTEEN KOPURUA AREAGOTZEA

NEURRIAK	INTZAK	DURADUNA	ERAZLEA	ONOGRAMA
<b>5.2.1. Beldur Barik programan edo eskualdean indarkeria matxistak prebenitzeko estrategikotzat jotzen diren Emakunderen beste programa batzuetan parte hartzea, Kuadrillako partaidetza koordinatuz.</b>	Adostutako ekintzak antolatzea eta ebaluatzea.	Berdintasun Unitatea. Lautadako ikastetxeak. Lautadako denbora libreko zentroak.	Garatutako Beldur Barik ekintza kopurua. Sexuaren eta udalerrri edo ikastetxearen arabera banatutako parte-hartzaile kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023
	Beldur Barik programa edo eskualdean indarkeria matxistak prebenitzeko estrategikotzat jotzen diren Emakunderen beste programa batzuk ezartzeko beharrezko ekintzak diseinatzea, Lautadako ikastetxe eta gaztelekuekin koordinatuta.	Berdintasun Unitatea. Lautadako ikastetxeak. Lautadako denbora libreko zentroak.	Beldur Barik antolatzeko bilera kopurua eta parte-hartzaileak. Berdintasun Unitateak eskainitako ordu kopurua.	2020, 2021, 2022, 2023

## VI. PROGRAMA: KALTEAREN HAUTEMATEA, ARRETA KOORDINATUA ZEIN INTEGRALA EMATEA ETA KONPONTZEA

### 6. HELBURUA: INDARKERIA MATXISTA ETA HORREN ADIERAZPENAK SAKONAGO EZAGUTZEA, DERIBAZIOA HOBETZEKO, BIZIRAUNEENTZAKO ARRETA INTEGRALA ZEIN KOORDINATUA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA BERMATZEKO, AHALDUNTZE IKUSPEGITIK

NEURRIAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	ADIERAZLEA	KRONOGRAMA
<b>6.1. Lautadako Kuadrillako indarkeriaren aurkako "I. Plana Integrala egitea: Giza Eskubideen ikuspegitik eta kaltearen erreparaziorako", 4/2005 Legearen eta Erakunde arteko III. Erabakiaren aldaketak.</b>	"Lautadako Kuadrillako indarkeriaren aurkako I. Plana: Giza Eskubideen ikuspegitik eta kaltearen erreparaziorako", egiteko prozesua kontratatzea, 4/2005 Legearen aldaketak ekarritako neurriak txertatzeko.	Berdintasun Unitatea. Batzorde Politikoa.	Istanbuleko hitzarmenak, NBEk, aldatutako Berdintasun Legeak eta indarkeriaren kontrako Erakunde Arteko III. Erabakiak proposatutako beharrezko aldaketa edo neurrien zerrenda. Zerrendatik hartutako neurrien ehunekoa.	2022
<b>6.2. Lautadako Kuadrillako Indarkeriaren II. Protokoloaren ezarpena koordinatzea.</b>	Urtero II. Protokoloaren erakunde arteko koordinazio mahaiaren bilerak antolatzea. Lautadako Kuadrillako Indarkeria Protokoloa	Lautadako Indarkeriaren II. Protokoloaren Erakunde arteko Batzorde Teknikoa	Egindako bilera kopurua. Sexu eta erakundearen arabera banatutako parte-hartzaile kopurua. Jorratutako gaiak.	2020, 2021, 2022, 2023
	Lautadako Kuadrillako Indarkeria II. Protokoloaren erakunde arteko koordinazio Mahaia osatzen duten langileak formatzea.	Lautadako Indarkeriaren II. Protokoloaren Erakunde arteko Batzorde Teknikoa	Antolatutako formazio ikastaro kopurua. Sexu eta erakundearen arabera banatutako parte-hartzaile kopurua. Jorratutako gaiak.	2021, 2023



# 10. AURREKONTUA

Ondoren, lau urtetarako aurrekontu estimazioa aurkeztu da, Berdintasun Agentearen kostuan –dedikazio orduetan– zein aurreikusitako ekintzak gauzatzeko kontratazio kostuetan oinarritutakoa.

Aurrekontu hau orientagarria da, herritarren beharren, udaletxearen planifikazioan –politikoa eta teknikoa– eta egun aurreikusi ezin diren egoeretatik edota Europa, estatu, autonomia edo probintzia mailan Berdintasunerako Politiken programa eta laguntzak agertu edo desagertzetik sortutako egoera sozioekonomikoen arabera urtero operatibizatu behar den dokumentu estrategikoa den heinean.

<b>GOBERNU ONA</b>	<b>125.550€</b>
1. PROGRAMA: BULTZADA POLITIKOA	56.000€
2. PROGRAMA: EZAGUTZAREN KUDEAKETA	24.600€
3. PROGRAMA: GENERO IKUSPEGIA LAN PROZEDURETAN	18.750€
4. PROGRAMA: KOORDINAZIO ETA KOLABORAZIOA	26.200€
<b>I. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA</b>	<b>170.800€</b>
I. PROGRAMA: BANAKAKO AHALDUNTZEA SUSTATZEA: AUTONOMIA, AUTOESTIMUA ETA AUTOZAINZTA	150.700€
II. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOA LAGUNTZEA: SOZIALA ETA POLITIKOA	20.100€
<b>II. BALIABIDEAK ETA ZAINZAK BANATZEA BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ERDIGUNEAN JARRIZ</b>	<b>135.800€</b>
III. PROGRAMA: ZAINZTEN BANAKETA ETA EKONOMIA FEMINISTA	73.800€
IV. PROGRAMA: BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK BANATZEA BIZITZA JASANGARRIA IZATEKO	62.000€
<b>III. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK</b>	<b>87.500€</b>
V. PROGRAMA: INDARKERIA MATXISTAREN SENTSIBILIZAZIO ETA PREBENTZIOA	68.000€
VI. PROGRAMA: KALTEAREN HAUTEMATEA, ARRETA KOORDINATUA ZEIN INTEGRALA EMATEA ETA KONPONTZEA	19.500€
<b>GUZTIRA</b>	<b>519.650€</b>

## AURREKONTUAREN BANAKETA ARDATZAREN ARABERA

